



Ukrainarrei elkartasuna adierazteko aukera

Durangaldeko komunitate ukrainarrak kezka handiz bizi du bere herrialdeko egoera eta mobilizatzen hasi dira. Elikagaiak eta askotariko materiala biltzen hasi dira eskualdean, gero euren herrialdera bidaltzeko. Oraingoz, bilketa gune bat martxan da Durangon. Zapatuan beste bilketa gune bat zabalduko dute Abadiñoako Muntzaratz auzoan. • 5



Bonbardaketa gogoratzeko irailera arteko egitaraua, prest

Aurten 85 urte beteko dira Durango bonbardatu zutenetik. Martxoaren 31ko bonbardaketa oroitzeko, Durangoko eragileek aspaldiko egitaraurik oparoena prestatu dute. Irailera bitartean, omenaldiak, ikuskizunak eta kultur proiektuak egongo dira, besteak beste. Gainera, gazteek parte hartze berezia izango dute aurten. • 4



Ifeelnut arropa marka: oihalgintzaren beste eredu bat bultzatuz

Maite Grande iurretarrak orain hamar urte sorturiko Ifeelnut proiektuak bere lekua egin du modaren merkatuan. Bilbon duen tailerrean, arroparen munduan zabaldu diren ereduak birplanteatzen ditu. Jasangarritasunaren eta sektoreko lan baldintzen inguruko hausnarketa egin du iurretarrak. • 2-3



Martxoaren 1etik 31ra
bitartean

**ESKAINNTZA
ARGITSUAK**

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK



Amaia Zabala Lasa, Maite Grande Maroto, Izaskun Ares Vieites eta Ane Altube Nuñez.

“Kontsumitzaile modura, arropa hobeto eta gutxiago erosteko kontzientziatu behar gara”

Ifeelnut arropa markak bere lekua egin du merkatuan. Maite Grande iurretarrak hasitako proiektuak Bilbon dauka estudioa

IURRETA • JONE GUENETXEA

Ifeelnut markako Maite Grande arduradunak dio arropa erostea erreflexiboa izan beharko litzatekeela, eta ez inpulsiboa. Jasangarritasunaren inguruan pausoak ematen dabiltza. Marka honek stock barik lan egiten du, adibidez. Merkealdien salmenta kontzeptua ere birdefinitu dute.

Zelan hasi zinen modaren munduan?

Kasualitate baten emaitza izan zen. Batxilerra amaitu nuenean arkitektura ikasten hasi nintzen. Oso galduta nengoan. Durangoko lagun batek moda ikastera zihoala esan zidan eta nik ere hori ikastea erabaki nuen. Agian, intuizioz hartuko nuen erabaki hori. Geroago, modaren mundua zeinen interesgarria zen konturatu nintzen.

Non ikasi zenuen?

Bilboko zentro pribatu batean. INEDI deitzen da. Lau urtean ikasi nuen han.

Zelan eman zenuen ikasle izatetik sektore honetan enpresa bat sortzeko jauzia?

Ikasketak amaitu nituenean praktikak egin nituen uda horretan. Enpresa pare batean ere lan egin nuen, patronista. Hemen hasiurretetik, gelakide bategaz proiektu bat hasi nuen. Esperientzia horiek guztiek akatsetatik ikasteko balio izan zidaten. Horrek ez du esan gura hamar urte hauetan akatsik egon ez denik. Egon dira batzuk.

Zein momentutan erabaki zenuen zure proiektu propioari ekitea?

Beti izaten duzu buruan ekintzailera izatea, baina gelakideak esan arte ez zen aukera hori sortu. Bion arteko proiektua genuenean, bide ezberdinetatik gindoazela ikusi nuen, eta horrela erabaki nuen neurriari ekitea.

Zelakoa izan zen hasiera?

Oso gogorra. Urteak pasatu ahala, urterik urte konturatzen zara urreko urtean baino hobeto zaudela. Eta hurrengo urtean hobeto. Diru

apur bat sortzen hasten zara, opor gehiago izaten... eta gauzek hobera egiten dute.

Proiektua zeure kabuz martxan ipintzerakoan, zeure estilo propioa sortu duzu. Zein filosofia du lfeelnutek?

Egiten dugunagaz gozatzea da helburua. Enpresa bat martxan ipintzen duzunean arazo txikiak eta arazo handiak sortzen dira. Orain bost urte inguru ikasi nuen horretaz deskonektatzen. Benetako arazoak hor daude, eta guk arropa egiten dugu, ez kirurgiak. Beraz, arazo horietaz deskonektatzen eta gozatzen ikasi dut. Hemen asko gustatzen zaigu zeozer polita egiten dugunean txalo egitea. Ez daukagu afariak egiteko astirik, baina elkar txalotzeko bai.

Modak badauka artetik eta sorkuntzatik, baina enpresatik eta kudeaketatik ere bai. Zelan uztartzen dira alde biak?

Egia esan, niri gauza asko egitea gustatzen zait. Ekoizpenaren alde eta negoziazioak dira ez zaizkida-

nak gustatzen. Orain talde bat dudanez, hori ere errazagoa da.

Enpresa bat martxan ipintzen duzunean, arazo txikiak eta arazo handiak sortzen dira. Orain bost urte inguru ikasi nuen horretaz deskonektatzen

Zelako lantaldea zarete?

Orain lau pertsona gara, baina hasieran neu bakarrik nengoan, eta amaren laguntza nuen. Lantalde hau azken lau urteetako da. Lan egiteko moduari dagokionez, urtean kolezio bi egiten ditugu, bat udarako eta beste bat negurako.

Modaren eta diseinuaren sektorean, zein zailtasun nagusi aurkitu dituzu?

Hasteko, enpresa baten lehenengo arazoa dirua da beti. Eta gure sektorean zehazki, marka handiak alde batera utzita, txiki asko daude. Borroka horretan sartzea eta

herrialde bakoitzean komertzial bat izatea kostatu egiten da. Behin saltzen hasten zarenean, beste alde konpondu behar duzu. Bestalde, estatuan ekoiztu gura dugu, baina ehungintzaren sektorea ez dago ondo. Kosta egiten da tailerrak aurkitzea. Tailer txikietarako larregi ekoizten dugu, eta handietarako gutxiegi. Beste arazo bat da inork ezagutu barik zure lanari balioa eman behar diozula, erosten duzunagaitik prezio duin bat ordainduz. **Komertzialki zelan lan egiten duzue?** Estatuan lan egiteko, komertzial batezaz zazpi bat urte daramatzagu. Bestela, ezinezkoa da saltzea. Hasieran zuk zeuk deitu dezakezu, baina zaila da. Gainera, saltzea ez da nire indargunea. Orain, Belgikan ere komertziala dugu, eta Alemanian ere bila gabilta. Salmentak normalean *showroom* baten bitartez egiten dira. Diseinua eta produkzioa gauza bat dira, baina salmenta beste bat da. Beraz, guk kolezioa *showroom*ean aurkezten

dugu eta gero eurak dira dende-kin berba egiten dutenak. Beraz, bitartekari hori dugu.

Orain zein kolekziogaz diharduzue?
Udako kolekzioa banatzen gabiltza eta hurrengo udarako egiten hasi behar gara. Oihal berriak aukeratuta ditugu eta berriro diseinatzen hasi behar gara.

Zelan eragin dizue pandemiak?
Igarri dugu aldaketa pandemian, baina positiboa. Uste dut jendea gogoeta egiten dabilela erosketaren kontzeptuaz. Jendeak bertan

Udako kolekzioa banatzen gabiltza eta hurrengo udarako egiten hasi behar gara. Oihal berriak aukeratuta ditugu eta berriro diseinatzen hasi behar gara

ekoiztutako produktuen aldeko apustua egin du. Aldi berean, horrek badu ondorio negatibo bat. Izan ere, kanpoan ekoizten zuten marka batzuek bueltatu egin gura dute, eta handiak dira. Tailerretan kompetentzia handia izango dugu, eta agian ez dute lekurik izango guretzat.

Zelan antolatzen duzue lana?
Ekoizpenaren zati bat hemen mozten dugu eta tailerretara bidaltzen dugu. Bolumenaren arabera, kanpora ere ateratzen dugu. Bolumen gutxiagoko produktua bada, hemen egin dezakegu. Beharizanetara moldatzen gara.

Zein iritzi duzue arropa ekoizpenaren eta jasangarritasunaren inguruan? Low cost delakoa geroago eta gehiago bultzatzen da. Kalitate baxuko arropa merke eta asko erostea gura dute. Horrek badu irtenbiderik?

Zaila da. Azken hamar urteotan atzerapauso handia eman da, baina posible da joera hori aldatzea. Kontsumitzaile modura, arropa hobeto eta gutxiago erosteko kontzientziatu behar gara. Planetan nahikoa arropa dago eta ez dago gehiago erosi beharrik. Arropa ekoizlea izanda, agian txarto dago nik hau esatea, baina horrela da. Marka txikiok egin behar duguna da kontsumitzailea hezi. Jendeak kalitatea baloratu dezala eta jantzi baten prezioa ulertu dezala.

Merke erosten denean, zer dago horren atzean?

Kontsumitzaileek pentsatu beharko lukete arropa bat erosten dutenean ez dela magia sortzen denda batean. Jantzi baten atzean jende asko dago, ordu asko, familiak eta bizitzak, eta horiek dira garrantzitsuenak. Beraz, denda batera joaten direnean eta arropa bat merke erosteagaitik alaitzen direnean pentsatu dezatela oihala kon-

tuatu hartuta bakarrik prezio hori ez dela duina. Jantzi bat hain merkea denean, pentsatu behar dute euren ez dutela ordaintzen, baina beste norbaitek bai, lan baldintzetan, bizi baldintzetan edo planetak berak ere ordaintzen duela.

Zelan lantzen duzue gai hori?
Adibidez, ez dugu stockagaz lan egiten. Zeozer geratzen bazaigu, zarratu duen dendaren batek bueltatu duelako da. Edo soberan dugun oihalen bat aprobetxatzeko. Guk sei hilabete lehenago saltzen dugu, eta horregaz bizitzeko ematen badigu, horixe da behar duguna. Jarraikortasuna duten abrigoen kolekzioetan, orokorrean, ez dugu beherapenik ipintzen. Beherapenak izan arren, produktu horrek balio bera izaten jarraitzen du. Arropa mordo bat debalutzea gero merkeago saltzeko ez du zentzurik. Kosta egiten da. Guk ere gura genuke dena saldu, baina gai hau serio hartu behar dugu, denok.

Denden eta interneten bitartez saltzen duzue, baina zein neurritan?
Batez ere dendetara saltzen dugu, online baino gehiago. Urtarrilean Ane lanean hasi zen gugaz, eta sare sozialak gehiago mugitzen hasi gara. Gure ahulgunea da. Hamar urte daramatzagu lanean eta jendeak ez daki oraindino Bilbokoak garela. Komunikazioa ez da izan gure indargunea. Taldea behar da denera heltzeko.

Jantzi baten atzean jende asko dago, ordu asko, familiak eta bizitzak, eta horiek dira garrantzitsuenak

Zein erronka duzue momentu honetan?

Estatuan ekoizten jarraitzea erronka bat da. Tailerrak eskurgarri izatea gura genuke, eta Europar apurtxo bat saltzea, taldea apur bat handitzeko. Helburua ez da enpresa handi bat sortzea. Gura duguna da lantalde bat izatea; kontziliatzeko, adibidez.

Formakuntza saioak ere eman izan dituzue.

Hainbesteko lanagaz, bariku arratsaldeetako da mantentzen dugun kurtso bakarra. Hainbeste urtean jende asko pasatu da hemendik, eta euren gauzak egitera etortzen dira. Baina aurten ez daukagu talde berririk. Ikastaroak ematea asko gustatzen zait. Horrela, jendea hezi egiten da. Konturatzen dira jantzi bat egiteak zelako lana eskatzen duen. Gainera, oso ondo pasatzen dugu eta bezeroak izaten amaitzen dute.



Jantokietako elikagaien kudeaketa tokiko erakundeekin koordinatuta egitea defendatu du Berton Bertokoak

Dinamikako kideak Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin batu dira. Diotenez, Jaurlaritzak oniritzia eman die proposaturiko neurrietatik hiruri, baina "zalantzak" agertu ditu laugarrenean, elikagaien erosketari eta kudeaketari dagokien puntuan

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Berton Bertokoa dinamikako kideak Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Sailagaz eta Hezkuntza Sailagaz batu dira. Esku artean duten proiektua ipini dute Eusko Jaurlaritzaren mahai gainean, sukaldia duten (eta izango duten) Durangaldeko ikastetxe publikoetan bertako eta sasoiko produktuak sartzen joateko proiektua. Dinamikako kideek diotenez, Jaurlaritzak oniritzia eman die proiektuak jasotzen dituen lau proposamen nagusietatik hiruri. "Jaurlaritzak begi onez ikusten du jantokiaren kuotak eskolek kobratzea, guraso elkarteek barik; ontzat eman du jantokiko behargin eta hezitzaileak catering enpresek kontratatzea, guraso elkarteek barik, eta oniritzia eman

dio sukaldariak Hezkuntza Sailak kontratatzeke proposamenari", azaldu dute.

Baina laugarren puntu bat airean dago oraingoz, ikasleen bazkariak egiteko erosi beharko lirakeen elikagaiena. Berton

Bertokoak proposatzen duena da elikagaien erosketari eta kudeaketa eskualdeko ekoizleekin egin beharko litzatekeela, tokiko erakundeekin eta udalekin koordinatuta. Modu horretan, ikasleek jaten dutena sasoikoa

eta tokiko ekoizleek ekoizirikoa dela bermatu gura du dinamikak. Baina Berton Bertokoako kideek diotenez, Eusko Jaurlaritzak "zalantzak" agertu ditu puntu horretan. Atal hori argitu barik dago oraingoz.



Berton Bertokoa dinamikako kideak Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan.

Zabalik dago martxa nordikoa lantzeko ikastaroetan izena emateko epea Garain

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaitarrek martxa nordikoa edo *nordic walking* delakoa lantzeko aukera izango dute datorren asteetan. Mankomunitateak hiru saio antolatu ditu, martxoaren 8rako, 15erako eta 22rako. Garaiko frontoian eskainiko dituzte saioak, monitore batez. Mankomunitateak jakinarazi duenez, ordu eta erdiko saioak izango dira. Lehenengoan, teoria landuko dute. Hortik aurrerakoak praktikoak izango dira. Izena emateko, 946200546 telefono zenbakira deitu behar da.

Garain martxa nordikoa landuko duen talde iraunkor bat sortzen laguntzea da ikastaroaren asmoa, Abadiñon eta Elorrioren egin duten moduan.

Martxoaren 31 aitz eta zabala, kenduriko duintasuna memoriak bueltatu dezan

Durangoko eragileek aspaldiko egitaraurik oparoena prestatu dute. Aurten, gazteek leku berezia izango dute



Eragileek astelehenean egindako agerraldia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak, alderdi politikoek eta herriko elkarteek Martxoaren 31ko egitaraua aurkeztu dute asteon. Egitarau zabala prestatu dute, azken urteotako zabaleketarikoa. Irailera arteko egitaraua izango da, omenaldiak, ikuskizunak eta kultur proiektuak batuko dituena. Aurtengo berrikuntzen artean, gazteen parte hartzea dago. Gaur egungo faxismoa aztertzeke berbaldia eta Durangoko eta Iurretako gazteek interpretatuko duten kultur ekitaldia daude horien artean. Ima Garrastatxu alkateak adierazi duenez, "oso garrantzitsua da belaunaldi berriek gertaturikoa ezagutzea, berriro ere halakorik gertatu ez dadin". Egitarau osoa anboto.org atarian kontsultatu daiteke.

Hilerriko prospekzioan bonbardaketako biktimarik topatu ez dela eta, udalak lanean jarraituko du "historiatik erazutitakoa" familiei bueltatzeko.

Skate komunitatearen jai, instalazio berria inauguratzeko

Zapatuan Durangoko skate pista berria zabalduko dute; ez dira BMX klaseak, erakustaldiak, musika eta grafitiak faltako

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko skate park berria zapatuan inauguratuko dute, egun osoko jai bat eginda. Inaugurazioa jai bat izan dadin gura du udalak, eta gazteek askotariko egitasmoak prestatu dituzte horretarako. BMX klaseak, erakustaldiak

eta musika, besteak beste. Arratsaldean, grafitigileek *Durangoko skate parka* dioen murala pintatuko dute, eta haren ondoan *errespetua* berba ipiniko dute hainbat hizkuntzatan. Egitarauko ekintzak 9:30ean hasiko dira eta iluntzera arte iraungo dute.



Skate pista berria Arripauseta inguruan dago.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko martxoaren 4a
20. urtea - 884. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Guri berdin digute NATOk, Errusiak zein beste edozeinek; gure bandera antimilitarista da”

Durango Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak aro berri bat hasi du. Sinadura bilketa egingo dute atzeritarrak erregularizatzeko, Herri Ekimen Legegilea kongresura eramateko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Sabin Bilbao (Durango, 1953) eta Eneko Baseta (Berriz, 1981) Durango Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideak dira. Urte biko etenaren ondoren, lanari berrekitzea dute helburu.

Zerk bultzatuta erabaki duzue Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma berpizea?

Eneko Baseta: Plataforma etenda moduan egon da pandemia dela eta, nahiz eta partaideen hartu-emanak aurrera jarraitu duen. Orain, dena lasaitzen dabilela dirudienean, natural etorri da plataforma berpizteko ideia.

Sabin Bilbao: Alde batetik, pandemia egon da. Baina, gero, badago beste arrazoi bat, laster Herri Ekimen Legegilea bat eztabaidatuko da eta Espainiako kongresuan. Atzeritarren erregularizazioaren aldeko lege ekimen bat da. Ikusiko dugu zein bide hartuko duen, baina 500.000 sinadura batu gura ditugu eta gaia Espainiako kongresura eramango da. Gureaz gainera, beste hainbat elkarte dago egitasmoaren atzean. SOS Arrazakeria eta Arrazalaztatutako emakumeen mugimendua, adibidez. Asmoa sinadurak batzen jarraitzea da. Hego Euskal Herrian 35.000 batu beharko genituzke. Horretan gabiltza. Eta hortik hasi gura dugu berpizte hau.

Begiradak Ukrainan ipinita daude. Zein da egoeraz egiten duzun interpretazioa?



Sabin Bilbao eta Eneko Baseta, Durango Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideak.

S.B.: Sei urte bete ditugu Durangon hasitako mugimendu honez, eta hasiera-hasieratik hauze izan da gure eslogana: gerrarik ez. Guri berdin digute NATOk, Errusiak edo beste edozeinek. Gure bandera antimilitarista da. Orain Ukraina dago denen ahotan, baina ez dugu ahaztu behar Sirian jarraitu egiten dutela bombardaketek. Israelen, beste horrenbeste. Sahelen ere bai. Arazo hau militarismoak sortzen du. Eta guk, xeheak garenok, arazo horien ondorioak jasan behar izaten ditugu.

E.B.: Plataformaren ardatzetariko bat beste herrialdeetan gertatzen dena modu kritikoa ikusaraztea da. Herritarrek euren lurraldeetatik zergaitik alde egin behar izaten

duten azaltzea. Armen kontrako kanpainak egiten ditugu, eta kon-tuan hartu behar da Euskal Herrian arma asko ekoiztu eta saltzen dela. Ez dakit gure lana inoiz baino beharrezkoagoa den ala ez, baina aukera ematen du mobilizatzeko eta gertatzen dabilena herritarrekin batera kalean salatzen.

Zelakoa izan da zuen ibilbidea orain arte?

Sabin Bilbao: Durangon enkarteladak, konferentziak, proiektzioak egin ditugu. Elkartasun Besarkada ere egin dugu. Plataformako talde eragilean gutxi batzuk gaude, baina ekintzetara jende gehiago etortzen da. Horixe da gure asmoetariko bat, talde eragile hori indartzea.

Negozio bat martxan ipintzeko gida praktikoa kaleratu dute Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak gida praktikoa argitaratu du, enpresa jarduerak bat pausorik pauso zelaz garatu daitezkeen azaltzen duena. Gidak ekintzaileentzako tresna izan gura du, "enpresa sare lehiakorak eta etorkizunerako aukerak" sortzeko. Estibaliz Martiartu zinegotziak dioenez, argitalpenak hiru atal ditu: negozioa zabaldu aurretiko pausoak, negozioa zabaldu osteko betebeharrak eta kontsultatu beharreko helbideen bilduma. Argitalpena Lanbide Heziketaz batera egin dute.



Estibaliz Martiartu, Zornotzako Ekonomia Sustapen eta Enplegu zinegotzia.



Vasyl Savchuk eta Valentina Androshchuk Durango bilketa gunean.

Ukrainarrak eskualdean: "Oso kezkatuta gaude; edozein ekarpen ondo etorria da"

Durangaldeko ukrainar komunitateak kezka handiz bizi du bere herrialdeko egoera. Elikagaiak eta askotariko materiala biltzen hasi dira Durangon eta Abadiñon

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Euren herrialdean gertatzen dabilenaren aurrean, Durangaldean bizi diren ukrainarrak mobilizatzeko hasi dira. Elikagaiak eta materiala batzen dabilta, dena Poloniara bideratu eta handik Ukrainara sartzeko. Valentina Androshchuk ukrainarra da eta 17 urte daramatza Durangon bizitzen. Lanak ahalbidetzen diotenean, bilketa gunera joaten da laguntzera. "Egoera honen aurrean ezin nuen geldirik egon. Zeozer egin behar nuen. Izututa eta oso kezkatuta gaude eta edozein laguntza ondo etorria da", dio. Bere gurasoak eta ahizpa Kiev hiriburutik 150 kilometrorra dagoen herri batean bizi dira. "Gune militarra da. Joan zen egunean misilak bota zituzten aireportura, herritik kilometro bira. Atzo ere misilak jausi ziren herritik gertu", dio. Gurasoek aterpe bat dute etxearen azpian, eta han ezkutatu dira. Bere lagun batzuk Kiev hiriburuan daude. "Sotoetan daude. Janaria prestatzera etxera igotzen dira eta sirena hotsak entzuten dituztenean arineketan jaisten dira berriro sotora", kontatu du.

Vasyl Savchuk ere elkartasun kanpainan lanean dabil. 13 urte daramatza Traña-Matienan bizitzen eta lanean. Hemen irabazitako dirua senitarrekoei belditzen die. Emaztea eta alaba biak Ternopil hiri inguruan bizi dira, Ukraina mendebaldean. Oraingoan, zonalde hartan ez da

gatazkarik gertatu, baina Vasyl arduratuta dago. "Oraingoan ez dago militarrik han, baina gerra bat da eta sekula ere ez dakizu zer gertatu daitekeen", azaldu du. Egoera "kezka handiz" bizi duela dio eta familiagaz sarritan berba egiten ahalegintzen dela.

Bilketa puntuak:

Durango bilketa gunea

Juan de Olazarán kaleko 17. zenbakian dago. Orduetgi hau du: 10:00-14:00 eta 17:00-21:00.

Abadiñoko bilketa gunea

Muntsaraten dago, Andra Mari kaleko 3. zenbakian. Zapatuan: 10:00-14:00 eta 16:00-18:00.

Batzen dabiltzana:

Oinarritzaileak:

Higiene produktuak, haur-oihalak, esne-hautsa...

Hotzaren kontrakoak: arropa termikoa, eskularruak, galtzerdi termikoak, neguko arropa, lo-zakuak, gorputz-berotzaileak, metxeroak, pospoloak, argizariak, linternak, pilak...

Elikagaiak: latak, energia-barrak, zerealak, kafea, azukrea eta iraungitzen ez diren elikagaiak eta azkar prestatzen direnak.

Osasun materiala: gasak, larrialdi kitak, musukoak, parasetamola, ibuprofenoa...

Podemosek Berrizko kaleren bati Martina Ibaibarriagaren izena ipintzeko eskatuko du

Elkarrekin Podemosek Berrizen jaiotako gerrillariaren memoria berreskuratu gura du



Berrizen dagoen horma irudiko argazkia.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Elkarrekin Podemosek iragarri du mozio bat aurkeztuko duela datorren asteko osoko bilkuran. Martina Ibaibarriaga berriztar gerrillariaren memoria berreskuratzea izango da mozioaren helburua, eta, hori lortzeko asmoz, herriko kale bati Ibaibarriagaren izena ipintzeko eskaria egingo dio udalari.

Ibaibarriaga 1788an jaio zen, Berrizen. Geroago, bere familia Bilbora joan zen, eta bertan bizi zirela berriztarraren aita eta anaia erail zituzten, Merlin jeneralak hiria hartu zuenean. Gertakari horren ondorioz, Ibaibarriagak Napoleo-

nen aurkako gerrillagaz bat egin zuen, eta, denbora batera, bere alderdiaren buru izatera heldu zen. Horren ondoren, Martina Ibaibarriaga armada erregularrean sartu zen, teniente koronel lez, eta Gasteizko batailan parte hartu zuen.

"Gure herritarren artean badira pertsonaia ospetsuak, haietariko batzuk beste batzuk baino eza-

"Historian funtsezkoak izan diren herriko emakumeen memoria berreskuratu gura dute"

gunagoak eta omenduagoak. Gizonetzkoek leku pribilegiatuagoa izan dute historian, baita gure herrian ere. Emakumeek ez dute izan merezi izan duten lekua beti. Horietariko bat Martina Ibaibarriaga izan zen. Martina isilarazi eta historiatik kendu zuten", azaldu du David Jimeno zinegotziak.

Mozio honegaz, Berrizen "historian funtsezkoak" izan diren emakumeen memoria berreskuratzea da Elkarrekin Podemosen asmoa, eta herri lez berdintasunaren eta balio feministen alde apustu egiten jarraitzea. "Ekimen hau babestuta, udalak aurrera egingo luke politika feministetan", amaitu du Jimenok.

Elorriok lankidetzaz hitzarmena sinatu du 'OinHerri Herri Hezitzailea' ekimenagaz

Proiektuan parte hartu gura duten talde eragileei bertaratzeko deia egin diete Elorrioko Udaletik. Batzarra martxoaren 23an izango da, 19:00etan, Iturri Kultur Etxean

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herri hezitzailea izateko asmoz, Elorriok lankidetzaz hitzarmena sinatu du OinHerri Herri Hezitzailea ekimenagaz. Umeen eta nerabeen kultura ezagutzea, onartzea eta ikaskuntzan eta garapenean jolasak eta sormenak duten garrantzia balioestea da helburua.

Gaztetxoekin egingo duten lehenengo ekintza maiatzerako aurreikusitakoak dira: Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek oparitutako zuhaitza non eta zelan landatu erabakitzea izango da.

Horrez gainera, proiektuan parte hartu gura duten talde eragileei martxoaren 23an 19:00etan egingo den batzarrean parte hartzeko deia egin diete udaletik.



Oinherriko eta Elorrioko Udaleko kideak.

'Zapatuetan Berriz', martxoaren 12tik aurrera martxan

2010etik 2017ra bitartean jaiotako haur eta gazteei zuzenduriko aisialdi programa da. Hamabostean behin egingo dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udaleko Euskara Sailak 'Zapatuetan Berriz' ekimena ipiniko du martxan. 2010etik 2017ra bitartean jaiotako haur eta gazteei zuzenduriko aisialdi programa da eta hamabost egunean behin egingo dute.

Ekimen honen helburu nagusiak euskararekiko jarrera baikorrak bultzatzea eta euskaraz bizitzeko grina sustatzea dira. Ingurune euskaldun batean, lagun artean, euskaraz aritzea eta aisialdi baliabideak erabiliz, ahozko adierazpena, modu sortzaile batean garatzea.

Martxoaren 12an emango diote hasiera ekimenari, herri kirollekin. Martxoaren 26an sormen

tailerra egingo dute, eta apirilaren 9an sukaldaritza tailerra. Bestalde, apirilaren 30ean herri ginkana egingo dute, eta maiatzaren 14an txangoa. Maiatzaren 28an emango dute amaitutzat 'Zapatuetan Berriz' ekimena, festa bat eginda.

Euskararekiko jarrera baikorrak bultzatzea eta euskaraz bizitzeko grina sustatzea dira helburuak

Horrez gainera, udaletik jakinarazi dute ekintzak 17:00etatik 19:00etara izango direla, eskolako patio estalian.

Atxondoko Herri Eskolan eta liburutegian eguzki plakak ipintzen hasi dira

Guztira, 87 eguzki plaka ipiniko dituzte: 21 plaka liburutegian eta 66 Atxondoko Herri Eskolako teilatuan



Liburutegiko teilatuan eguzki plakak jarri dituzte.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean, Herriko Eskolako eta liburutegiko eguzki plakak ipintzen hasi ziren Atxondon. Instalazio hauek energia fotovoltaikoko lehenengo biak dira eta elektrizitate fakturretan %50 aurrezteko ekarriko dute. Guztira, 87 eguzki plaka ipiniko dituzte; 21 plaka liburutegian, hegoaldera begira. Eta 66 plaka Herri Eskolan, hauek teilatuaren alde bietan.

Atxondoko Udalak 48.085 euro inbertituko ditu lan hauek egiteko, eta, neurri batean, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntza bati eskerrak ordainduko dute.

Igogailua martxan

Bestalde, Euskalerrria kaleko igogailu berria dagoeneko martxan dagoela iragarri du udalak astean. "Jarduera honek pertsona askoren egunerokotasuna erraztuko du eta beste urrats bat izango da elizara eta eskolara doazen oinezkoentzako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzen jarraitzeko", azaldu dute Atxondoko Udaleko arduradunek. Igogailua ipintzeaz gainera, eskailera edo hesi arkitektonikorik bako pasabide bat ere eraiki dute, irisgarritasuna hobetzeko.

 anboto

INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA 2022

Webgunean botorik gehien
jasotzen duen argazkiaren egileak
Errigora-ren otzara bat irabaziko du



Eman zure botoa
martxoak 4tik 9ra arte

*Oinarriak anboto.org webgunean

Otxandion kooperatiba bat sortuko dute herritarrei energia berriztagarrietarako trantsizioan laguntzeko

Instalazio fotovoltaiko komunitarioak sortzea izango da kooperatibak martxan jarriko duen lehenengo proiektua

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Herritarrei energia berriztagarrietarako trantsizioan laguntzeko helburua duen energia komunitatea sortuko dute Otxandion. Oreka du izena eta kooperatiba izaera izango du. Otxandioko Udala sustatzaileen artean dago eta Goiener-en laguntza dute.

Honako hau da helburua: herritarrei energia berriztagarrietan oinarrituriko proiektuetan parte hartzeko aukerak ematea eta energiaren inguruko aholkularitza eskainiz Otxandioko trantsizio energetikoa bultzatzea.

Zapatuan, 11:00etan, batzar zabal bat egingo dute Mainondoko gimnasioan. Laster sortuko den kooperatibari buruzko xehetasunak emango dituzte bertan, eta kooperatiba horrek aurrera eramango duen lehenengo proiektuaren berri emango dute.

Lehenengo proiektuan, zenbait instalazio fotovoltaiko ipini gura dituzte. Gura duten herritarrek eurretatik argindarra hartzeko aukera izango dute. Interesdunen argindar fakturaren eta titula-



Otxandioko Udala sustatzaileen artean dago eta GoiEner-en laguntza dute.

rraren NAN-aren kopia bat bidali dezakete oreka.otxandio@gmail.com helbide elektronikora. Ondoren, azterketa bat egingo dute; interesdunen argindar kontadoreak aztertuko dituzte, kontsumoa ikusteko eta instalazioen dimentsioak kalkulatzeko.

Zapatuan, 11:00etan, batzar zabal bat egingo dute Otxandioko gimnasioan

Komunitate energetikoen sorrera Europatik sustatzen den formula bat da. Herritarrek trantsizio energetikoan parte izatea da filosofia. Europar Batasuneko zuzentarauak sustatzen duen figura bat da eta estatuek tokia egin behar diote euren legedian. Espainiar Estatuan oraindino ez da urrats hori eman, baina badaude diru laguntzak eskuragarri komunitate energetikoei bultzada bat emateko.

Euskal Herriko emakumezkoen paleta gomako finalak, Mallabian

MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mallabiko pilotalekuak paleta gomako Euskal Herriko elite txapelketako finalak hartuko ditu zapatuan, martxoak 5. Partiduak 16:00etan hasiko dira eta Mallabiko pilotalekuan jokatu dira.

Txapelketa honetan, paleta gomako emakumerik onenak ibili dira lehian, eta Etxarri-Aranatzen, Areatzan eta Tolosan lehiatu eta gero, Mallabian jokatuko dute finala. Hauek

Txapelketako finalak martxoaren 5ean izango dira, zapatuan, 16:00etan

dira elite mailan finalera heldu diren palistak: Amaia Irazustabarrena, Maider Mendizabal, Uxue Murillo eta Laura Saez. Irazustabarrena eta Mendizabalek, Murilloren eta Saezen aurka jokatuko dute.

Gazteengan mendirako zaletasuna eta horri loturiko balioak sustatzeko egitasmoa aurkeztuko dute Mañarian

12tik 18 urtera arteko Mañariko gazteak mendiaz hartu-emanetan ipini gura ditu '0-2000' izeneko proiektu berriak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Gazteak mendiaz eta zaletasun horri loturiko balioekin hartu-emanetan jartzeko egitasmo bat ipini dute martxan Mañarian. Proiektuaren gaineko xehetasunak gaur aurkeztuko dituzte, 18:30ean, Mañariko udaletxean.

Mañarian bizi den Mikel Garcia Urien durangarra da proiektuko sustatzaileetarikoa bat. Mendi ertaineko gidari titulazioa du eta, besteak beste, Bizkaiko Mendi Federazioagaz lan egiten du.

Egitasmoa 12tik 18 urtera arteko gazte mañariarrei zuzenduta dago eta, mendirako zaletasuna pizteaz gainera, hainbat helburu bete gura ditu: mendiko teknikak ikastea, orientazioa, balioak, talde izaera, naturarekiko ikuspegia... "Mendira igo, jaitzi eta kito. Ez dugu hori bakarrik izatea gura. Gehiago sakondu gura dugu", dio Garciak. Proiektuko leloak, *Gaurko hazia biharko lorea*, ondo islatzen ditu helburuak. "Gaur jakinduria bat eta

mendirako mekanismo batzuk eman gura dizkiegu gazteei, etorkizunean autonomia osoz eta segurtasunez euren kontura joan daitezen mendira", azaldu du Garciak.

Hilero irteera bat

Udalaren laguntza duen egitasmoa '0-2000' deitzen da. Izan ere, helburua honako hau da: erronka errazetatik abiatu eta apurka 2000 metroko garaiera duen mendi bat

igotzera heltzea. Hilero irteera bat egingo dute, domeka batean. Lehenengo martxoaren 27an izango da. Ogoñora joango dira, Laga eta Elantxoberen artean dagoen lurmuturrera.



Mikel Garcia proiektuko sustatzailea eta Ainara Otxotorena Mañariko alkatea.

Martxa nordiko ikastaroa egingo dute martxoan zehar Izurtzan

IZURTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kirol orientazio zerbitzuak antolatuta eta Kirolenek, Mugimend Pertsona Aktiboak eta Izurtzako Udalak bultzatuta, Nordic Walking edo martxa nordiko ikastaroa antolatu dute lehenengoz Izurtzan.

Ikastaroa martxoaren 9, 16, 23 eta 30ean egingo dute; goizetan, 11:00etatik aurrera

MobiDurangaldea ekimenaren barruan antolatu dute ekimena eta martxoaren 9an, 16an, 23an eta 30ean egingo dute. Ikastaroa goizetan izango da, 11:00etan, eta partaideak Izurtzako frontoian batuko dira.

Ikastaro honetan parte hartu gura duenak edo informazio gehiago gura duenak 747 493 680 telefono zenbakira deitu dezake.

ERRESERBA egin Errioxan. Mahastizaintzako eta ardogintzako kultura ezaguna eta mundu osoan baloratua duen lurraldea delako. Izan ere, gure bikaintasun eta aberastasun naturala sentitu ahal izango duzu -Leza, Jubera, Cidacos eta Alhama haranetako biosferaren ERRESERBA izateagatik aitortua eta ingurune natural pribilegiatua eta leku ikusgarriak dituena-. ERRESERBA egin Errioxan, egonaldi luzeagoak egiteko, gure baliabide turistikoak, naturalez eta kulturajaialdiez gozatu ahal izateko, baita gure ostatuez, jatetxez, tabernez eta abarrez. Orain, ERRESERBA egin Errioxan.

Errioxa ezagutu beharreko kontinentea da urteko edozein garaitan, eta eskaintza enoturistiko handia du. Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuko 400 upategi baino gehiago ditu, eta munduko ardo handienetako bat ekoizten duen eskualdeko mahastizaintza eta ardogintzaren historia eta kultura pasio osoz zabaltzen dute; gure gastronomia aberatsa da, eta biztanleko Michelin izar gehien dituen autonomia erkidegoa da Espainian. Gure ondare historiko eta kulturala: erakargarri nagusietako bat Donemiliaga Kukulako Yuso eta Suso monasterioak dira, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatuak. Baina baita Naiarako Santa Maria la Real Monasterioa, errege-erreginen panteoia, eta Contrebia Leucadeko aztarnategi zeltiberiarra ere, besteak beste.

Donejakue bidea hemendik pasatzen da. Errioxatik Santiagora iristeko hiru ibilbide elkartzen ditu: bide frantsesa, Ebroko Donejakue bidea eta Barrualdeko Euskal Bidea. Erromesek zereal zelaien eta ehun urtetik gorako mahastien artean egiten dituzte ibilbideak, gure tradizioak eta errioxarren abegi ona ezagutzeko aukera ere ematen diena.

Izan ere, horrelakoa da Errioxa, elkargunea eta elkar ulertzeko gunea, bideak gurutzatzeko gunea, berezko nortasuna duen lurraldea, elementu natural, kultural eta historikoen heterogeneotasun handia hartzen duena. Ezaugarri horrek izaera bereizgarri eta erakargarria ematen dio zentzumenean atsedean eta atseginerako lekua bilatzen dutenentzat, bisita ba-



Gastronomiaz, ardo bikainez, upategiez eta mahastien edertasunaz gozatzeko hamaika aukera eskaintzen ditu Errioxak.



Abentura-parkeak ere asko dira Errioxan.



Donejakue bidea da beste aukera bat.

Erreserba egin Errioxan

koitzean berraurkitzen den eskualde hau gozatzeko eta ezagutzeko. Izan ere, benetan axola duena ez da Errioxara ekartzen duzuna, baizik eta bueltan eramango duzuna. Sentipenez betetako maleta bat, Errioxak zure bidaiaren esperientzia ahaztezin bihurtzeko eskaintzen dizun guztiarena.

ENOTURISMOA

Gaur egun, enoturismoa ez da upelategi bat bisitatzeko bakarrik, mahastizainarekin mahastiaren jatorria ezagutzeko ere bada, zaldiz paseatzea edo bizikletaz ehun urtetik gorako mahastien artean ibiltzea, mahasti-itsaso bat den eskualde bat globo batetik ikustea, wine-bar batean

dastatze bat egitea, barrikatik ardo bat deszifratzea, maridajeak egitea, ardoaren arkitekturan zehar bidaiatzea, denboran zehar lekualdatzea ehun urte inguruko ardotegei baten azpian, hurrengo uzta familian biltzea...

KULTURA

Errioxako historiak monasterioetan eta kondairetan ditu bere sustraiak, eta hainbat herrik eta erresumak gutziztatutako mugako lurra izan zela erakusten dute. Donemiliaga Kukulako Suso eta Yusoko monasterioak; Naiarako Santa Maria la Real monasterioa, Naiara-Iruñea erresumako erregeen eta infanteen sorleku eta panteoia; eta Valvanerako nas-

terioa, non eskualdeko zaindariaren irudia babesten den mendi inguru batean; horietako batzuek beren erlijio-komunitateei eutsi diete, eta turismo kultural, erlijioso eta artistikorako guneak dira.

Errioxatik Santiagora iristeko hiru ibilbide igaro eta elkartzen dira; ezaugarri berezia da hori. Donejakue bideak 60 kilometroko ibilbidea eskaintzen du Errioxan zehar, hiru etapatan. Donejakue bidea egiteko modu asko daude: oinez, bizikletaz, zaldiz.

GASTRONOMIA

Biztanle bakoitzeko Michelin izar gehien dituen Espainiako

eskualdeak sei izar ditu bost jatetxetan, eta bi Bid Gourmand. Baina zerrendak alde batera utzita, Errioxako gastronomia taparen kulturaren bidez ere bizi daiteke pintxoak eskaintzen dituzten tabernetan eta gastrotabernetan, eta tokiko sukaldaritzagatik ospetsuak diren janari-etxeetan: lurretik platerera delakoa.

Lehengai oparodun eskualdea. Garaian garaiko laboreak, non orburuak, kardua, azalorea edo borraja bezalako barazki eta barazkien barietateak ahasbai bikainenak gozatzeko dituen. Mendilerroen eta artzainen lurraldea. Errioxan ere haragi onak daude, mendi inguruetako ardi, behi eta ahuntz aziendari esker. Horri esker, askotarikoak dastatzeko aukera dago: txuletilla erreka mahatsondo-xirmendu lehorretan, arkume gisatua, Demanda eta Cebollerako larreretako antxume erre fama-tua, baina baita Naiarako piperrak, alegria errioxarrak, txanpiñoiak, patatak txorizoa-rekin, potxa zuriak eta kaparroiak.

TURISMO AKTIBOA

Turismo aktiboa, landa-turismoa edo natura-turismoa egiteko lurraldea, eta familian ere zeharkatzeko. Ingurune babestuekin, parke naturalekin, biosferaren erreserbekin eta Starlight hel-muga turistikoekin, izarrak behatzeko zeruen kalitateagatik; turismo aktiboa eta aire zabaleko jarduerak, hala nola mototurismoa, abentura-parkeak, globo-bidaiak, segwayan ibilbideak, quadak, zaldi-ibilaldiak, jarduera nautikoak; abentura-turismoa, golfa...

Bestalde, munduan ez dago dinosauroen arrastoen kontzentrazio hain handirik: gutxienez, 170 aztarnategi, 11.000 dinosauro-aztarna baino gehiagorekin 22 udalerritan banatuta.

Horregatik guztiagatik eta askoz gehiagotatik:
#ReservaLaRioja



INFORMAZIO
GEHIAGO

Babesa eskatu dute auzolanean egindako eskultura Eitzagan ipintzeko



Hainbat zaldibartarrek bat egin dute kanpainagaz; erdian, eskultura.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Eitzagako hondakindegia amildu eta urte bira egindako ekitaldian, Zaldibar Argituk oroitarria, gertaera haren oroigarri fisikoa, ipintzeko asmoa zuen, "bizia galdu zuten langile bien omenez, euren familia eta lagunuen omenez eta

hondamendiaren eragina gertutik bizi zuten eta oraindino ere bizi duten auzokideen omenez". Urtarrilaren 4an egin zuten eskaria, baina Zaldibarko Udalaren ezezkoa jaso zuten. Aste honetan, martitzenean, agerraldia egin dute, eta ezezko horren arrazoiak

sorturiko "errespetu falta" nabarmendu dute. "Zaldibarko Udalak beste oroigarri bat ipintzeko asmoa du, non, noiz eta zelakoa izango den oraindino zehaztu ez badu ere. Urtarrilaren 10ean, dekretu bidez, eskultura ipintzeko baimena ukatu zigun alkateak. Harriduraz hartu genuen erabakia, are gehiago irakurri zuen arrazoia entzunda. Honela dio berbarik berba: udal baimenik barik ezin da oroigarririk ipini jabari publikoan. Horregaitik aurkeztu genuen eskultura ipintzeko baimena", diote. Hortaz, otsailaren 6tik, gordeta edukitu dute Iñaki Urizar zaldibartarrek hainbat herrikidegaz batera auzolanean egindako eskultura.

Herritarren babes bila

"Eitzagan gertaturikoak izan dezakeen oraigarririk sentikorrena eta egiazkoena herritarren eskutik datorrena izango delako, herritarren ekimena delako eta eskultura Eitzagan gertaturikoa gogoratzeko delako, bere lekua Eitzagan dago", azaldu zuten Idoia Marin Kortazarrek eta Jon Barañano Rodriguezek. Herritarren babesa bilatzeko, eskulturaren erreplika txikiak banatuko dituzte herriko denda eta tabernetan. Aurrera begira, ekimen gehiago egingo dituztela iragarri zuten.



Otsailaren 24an egindako protesta.

Eskolako patioaren aldeko elkarretaratzea Zaldibarren

Dozenaka herritarrek protesta egin dute Zaldibarko udaletxe parean; proiektua atzera botatzeko eskatu dute

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Kurutzear sektoreko obrek Amesten Dugun Jolastokia Eraikitzen proiektuan eragin zuzena edukiko dutela-eta, dozenaka herritarrek protesta egin zuten joan zen egunean. "Gaur egun dagoen moduan planteatuta, ezingo litzateke patioa handitu, eta hipotekatuta geratuko

litzateke eraikina", azaldu zuten protesta egin eta gero. Otsailen helegiteak aurkezteko epea amaitu zen, eta jolastokiaren proiektuari loturiko herritar talde batek helegite ereduak proposatu zituen. "Alternatiba bat" eskaintzeko eskatzen da bertan, "jolastokiaren hedapena ez murgatzeko".

Bidegorria Beresi aisialdi gunera helduko da, ingurua lurretako herriguneagaz lotuta

Zornotza eta Iurreta lotuko dituen Bizkaiko lehenengo bizipistaren barruan egingo den bidegorriak Tabernabarri eta Arriandi industrialdea ere lotuko ditu herriguneagaz



Arandiatik hasita, Beresi aisialdi guneraino egin gura dute bidegorria.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak Beresi aisialdi gunea Santa Apoloniagaz eta herriguneagaz lotuko duen bidegorriaren proiektua aurkeztu du, Zornotza eta Iurreta arteko bizipistaren lanen barruan gauzatuko dena. Udalak Bizkaiko Aldundiaren eskura utzi du horretarako lurzorua. Bizipistak (12,7 milioi euro) N-634 errepidearen alde biak lotuko ditu, eta Arandian bidegorria egingo dute Beresi aisialdi guneraino. Horretarako, N-634 errepidearen ardatza hiru bat metro mugituko dute Mallabienarantz.

Muntsaratzeko biribilgunea egiten hasi dira aste honetan

Lanek kilometro biko zatian izango dute eragina eta 1.800.000 euroko kostua izango dute

ABADIÑO • A.M.

Muntsaratz-Zelaieta errepidea hiri-zeharbide bihurtzeko lanetan, fase berri bati ekin diote. Aste honetan hasi dira Munstaratzeko biribilgunea berria egiten. Iazko azaroan hasi zituzten zeharbidea oinezkoentzako bihurtzeko lanak. Obra horiek kilometro biko zatian izango dute eragina eta 1.800.000 euroko kostua izango dute. Abadiñoko Udalaren

esanetan, aurreikusitako epean egiten dabilza lanak. Fase bitan banatu dituzte: zati nagusiak 1,6 kilometroko luzera du, eta Garbi enpresaraino helduko da; bertan, oinezkoen zirkulazioari emango zaio lehentasuna, eta espaloietan eta galtzadan esku-hartze osoa egingo da. Bestalde, Atxondoko mugaraino joango den zatian, aglomeratua eta seinaleak hobetuko dituzte.



Smurfit Kappa
Central forestal

55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN



Smurfit Kappa
Nervión



Berbarok aisialdi eskaintza zabala antolatu du udaberrirako eta udarako

Izena emateko epea martxoaren 7tik 10era bitartean izango da



Berbarok antolatutako udalekuetako argazkia.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Pandemiak baldintzaturiko urte biren ondoren, Berbarok eskaintza oparoa dakar aurten udaberrirako eta udarako. Udaberriko egonaldietan zein udalekuetan izena emateko epea martxoaren 7tik martxoaren 10era bitartean izango da. Berbaroren webgunean edo bulegoan egin daiteke.

Udaberriko oportetarako, Udaberriko Olgetan egonaldiak prestatu dituzte: 2017tik 2012ra bitartean jaiotakoentzat txanda bi egongo dira: apirilaren 11, 12 eta 13an lehenengoa, eta apirilaren 19, 20, 21 eta 22an bigarrena. 09:00etatik 13:00etara izango da egunero, eta txanda bietarako eman daiteke izena. Udara begira, Udan Olgetan egonaldiak, udaleku finkoak eta udaleku ibiltariak antolatu dituzte.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Datu arriskutsuak

Sara, Monica, Claudia eta Mercedes deitzen ziren eta 2022. urteko lehenengo bi hilabeetan bikotekideek erail dituzten lau emakumeak dira. Beste aldetik, munduan orain arte egin den ikerketarik handienak adierazten du 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen %27k indarkeria matxista jasan dutela. Baina ez dugu urrutira joan beharrik; udaltzaingoak helarazi dizkigun datuekin badakigu Durangon 2021ean 24 eraso matxista izan zirela (konparatzeko bakarrik, 2020an 15 izan ziren, eta 2017an 14). Horrek esan nahi du hobera egin beharrean okerrera goazela. Berdin zaigu zer adinekoak diren. Eraso bat eraso bat da baina errealitatea da kasu gehienak gazteen artean izan direla.

Gainera, kezkatzen gaitu iazko urte osoan zehar kontseiluan bi eraso berri baino ez genuela izan. Non galdu da informazioa? Gaur egun, tristea da, baina publiko egiten ez dena badirudi ez dela existitzen eta erlaxarazten gaituela, eta argi dago borrokan jarraitu behar dugula.

Orain udalean Durangoko III. Berdintasun Plana amaitzen ari gara, Durangoko hainbat eragilek eta pertsonak parte hartu dute; batez ere, mugimendu feministak. Honen hausnarketa egiterakoan konturatu gara oraindik gauza asko daudela egiteko. Noski emakumeok borrokatzen jarraitu behar dugula, baina mutilen eta gizonen laguntza eta inplikazioa guztiz beharrezkoa da. Datu hauek ikusita, seriotasunez pentsatu behar dugu zer ari garen txarto egiten.

Durungaldea asteen

Domekan dozenaka lagun batu zen Durangon gerraren aurkako protestan

Durango | Domekan gerraren aurka egin zuten protesta Durangon, eta dozenaka lagun batu zen bertan. Elkarretaratzeko deitzaileek, Durungaldeko KEM-MOC mugimenduko kideek, "atzerapauso bat emateko eta negoziaketa mahaiari jesartzeko" eskatu zieten estatuetako agintariei eta indar militarrei.



'Zaindu zure bizkarra' tailerra eskainiko dute Elorrioko Iturri Kultur Etxean

Elorrio | Elorrioko Udalak jakinarazi duenez, Durungaldeko Mankomunitateak eskaintzen duen Zaindu programak Zaindu zure bizkarra tailerra emango du. Mendekotasuna duten senitartekoak zaintzen dituzten pertsonen laguntzeko eta horiei orientazioa emateko da tailerra. Martxoaren 14an, 21ean eta 28an eta apirilaren 4an izango dira tailerrak, 17:30etik 19:00etara, Iturri Kultur Etxean.



Zornotzarren elkartasuna Saharako errefuxiatuen kanpalekura ailegatu da

Zornotza | Beste behin ere argi geratu da elkartasunak ez duela mugarik. Zornotzako herritar batzuk Saharan daude, hango aberri eguna eta maratoia direla eta. Izaskun Gisasola eta Jabi Gonzalez orain egun batzuk lurreratu ziren han. Eta orain aste batzuk iragarritakoa bete dute: Zornotzan baturiko osasun materiala Tindufeko errefuxiatuen kanpalekura eramanez. Elkartasunez beteriko 50 bat kaxa dira. Sahararrek pozarren hartu dute dohaintza, eta esker oneko mezua eskaini diete Zornotzako herritarrei.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ORAINDIK,
ORAIN ETA
ORAINGOZ



JON BASAGUREN
IÑIGO ASTIZ

Poesia eta musika emanaldia

2022
martxoak 18
19:00

ZURE GONBIDAPENA LORTZEKO:
94 681 27 26
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus
WhatsApp 688 86 37 36



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404



Durango Udalak bozketara eraman du trenak askatutako lurren inguruan lorturiko aurreakordioa

‘Ados al zaude Durango Udalak eta Eusko Jaurlaritzak PERI Ferrocarril delakoaren baitan lortutako aurreakordioarekin?’ da galdera

Durango Udarak eta Eusko Jaurlaritzak trenaren lurperatzeagatik askatutako lurren inguruan adostutako aurreakordioa baliozkotzeko aukera daukate martxoaren 11ra arte. Izan ere, Durango Udalak bozketara telematikoa martxan ipini du martxoaren 1etik 11ra arte, durango udalaren proiektu honekin iritzia helarazi ahal izateko. Modu horretara, udalak urte bakarrean proiektu estrategiko honi buruz egiten duen bigarren

bozketara izango da. Lehenengo ia martxoaren 14an antolatu zuen. Bertan, 7.000 durango udalaren bozkatu zuten, eta %94k 18 pisuko bost dorreak bertan behera utzi eta proiektu alternatibo bat lortzeko mandatua helarazi zieten erakundeek.

Orain, bozketara hau Durango Udalak azken asteetan martxan ipinitako parte-hartze prozesuaren bigarren fasea izango da. Bozketara telematikoa izango da nagusiki, eta <https://partehartu.durango>.

eu/ webgunearen bidez egingo da. Hala ere, Durango Udalarik eremutan boto-guneak jarriko dira arrakala digitala gainditzeko. Durango Udalarik honako galdera honi erantzun beharko diote: ‘Ados al zaude Durango Udalak eta Eusko Jaurlaritzak PERI Ferrocarril delakoaren baitan lortutako aurreakordioarekin?’

“Hasieratik egin dugun bezala, durango udalari aukera eman nahi diegu proiektu erraldoi honetan beren iritzia emateko.

Urte bakarrean herri honen lehengo galdeketa herritarra egingo dugu eta aurreakordio batera

Durango Udarak eta Eusko Jaurlaritzak adostutako aurreakordioa balioztatu ahal dute

iritsi gara Eusko Jaurlaritzarekin 18 pisuko bost munstroak bertan

behera geratu eta Durango Udalarik proiektu sozial estrategiko ekartzeko. Orain durango udalaren esan beharko digute ados al dauden aurreakordio honekin ala ez”, adierazi dute udal ordezkariak.

Babes Ofizialeko 240 Etxebizitza Eusko Jaurlaritzarekin lortutako aurreakordioak eraikigarritasuna %36 murriztea jasotzen du, eta, horri esker, eraikiko diren etxebizitzek 7,5 solairuko batez besteko altuera izan dezakete,

Klabeak

1

18 pisuko 5 dorrerik ez

Aurreakordio honen bidez, PERIko eremuan eraikigarritasuna %36 murriztea lortzen da, 18 pisuko 5 dorretik 7,5 pisuko batez besteko batera pasatuta. Guztira, 154 etxebizitza gutxiago egitea da asmoa.

2

Udal Ondarea berreskuratu

San Agustingo ospitale zaharra eta Pinondo Etxea gaur egun erabiltzen dauden udal eraikin bi dira. Aurreakordio honen bidez, eraikin historiko bi hauek egokitu eta erabilera sozialetara bideratuko dira.

3

Durango BOE Plana

Eusko Jaurlaritzak eta Durango Udalarik Babes Ofizialeko Etxebizitza garatzeko Udalarik gaitzeko Plan bat adostu dute aurreakordio honen baitan. Honek 10 urtean 240 BOE eraikitzea ahalbidetuko du Durangon.

4

Berdeguna gehiago

Eraikigarritasuna murrizteaz batera, aurreakordioak berdegune kopurua handitzeko aukera ematen du. Estimazio teknikoaren arabera, eremuan %20 igoko da berdegune kopurua, Durango Udalarik erdiguneko birika berdea indartuz.

aurreko planean aurreikusita-ko 18 altueretatik erdira baino gutxiagora igaroz.

Bestalde, eraikigarritasuna murrizteak berdeguneak %20 handitzea ahalbidetuko luke, 34.000m2 berdegune eta aisiialdirako guneez iritsiz, bost futbol-zelairen parekoak. Berdegune horiek automobilik gabeko guneez izango dira, eta zenbait bidegorri eta oinezbiderekin oinezkoentzako eta bizikletentzako konexioa ahalbidetuko dute. Gainera, berdegune handiak adin guztietarako aisiialdirako hainbat elementu izango ditu.

Lortutako aurreakordioak, gainera, udalerrirako hainbat proiektu estrategiko ekartzea ahalbidetuko du, hala nola Durangorako Etxebizitza Publikoaren Plana. Plan horren bidez, udalerrirako hainbat puntutan alokairu sozialeko erregimeneko Babes Ofizialeko 240 Etxebizitza inguru eraikitzea sartuko da.

Plan honek alokairuekin dagoen arazoari alternatiba bat ematen lagunduko duela adierazi dute udal arduradunek, alokairu sozial berria eskaintzeaz gain, herriko alokairu-merkatua bera orekatzen lagunduko baitu. Hori funtsezkoa da udalarentzat aurreakordioari dagokionez, Aritz Bravo eta Jorge Varela zinegotziek adierazi dutenez. Etxebizitza Publikoaren Plan honek 17,5 milioi euroko inbertsioa izango du, eta horietatik 15 milioi inguru Eusko Jaurlaritzari dagozkio.

Trenaren ibilbide zaharra

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du Pinondo Etxea eta San Agustin ospitale zaharra udalarekin batera berreskuratu, birgaitu eta txarto dauden kolektiboentzat zuzkidura-etxebizitza bihurtzeko. Horrela, gaur egun oso txarto dauden eraikin historiko bi hauek beren funtzio soziala berreskuratuko dute eta udal-

ondare historikoaren zati bat berreskuratuko da.

Lortutako aurreakordioak udalerrirako hainbat proiektu estrategiko ekartzea ahalbidetuko du

Azkenik, trenaren ibilbide zahar guztia udalaren eskuetara igaroko da, eta, horri esker, oraindik ere herria zati bitan banatzen duen trazatua ezabatu ahaliko da.

Durangarrei informazio zehatzagoa eskaintzeko asmoz, Durangoko Udalak <https://peri.durango.eus/hasiera/> webgunea berri du, parte-hartze prozesuaren ondorioak eta herritarrek egindako galderei emandako erantzunak kontsultatu ahal izateko.

Bozkaleku presentzialak

- Martxoaren 1ean (Martitzena) Adinekoen egoitza. 16:30 – 19:30
- Martxoaren 3an (Eguena) Andra Mariko elizpean. 16:00 - 20:00
- Martxoaren 5ean (Zapatua) Ezkurdiko plazan. 10:00-14:00
- Martxoaren 6an (Domeka) Herria elkartearen ondoan. 10:00 - 14:00
- Martxoaren 9an (Eguaztena) Madalena ermitan. 10:00-14:00
- Martxoaren 11n (Barikua) Ibaizabal auzoan. 16:00-20:00

Durangoko Udalak durangarren iritzia kontuan hartzeko prozesuaren ondorioak bildu ditu

Urte hasieratik eta otsailaren amaierara bitartean, Durangoko Udalak erakusketa bat, informazio bilerak eta tailer ezberdinak burutu ditu durangarrek tren lurperatzeagatik askatutako lursailentzako proiektuak eta alternatibak aztertu eta proposa ditzaten. Prozesu horretatik eratorritako ekarpenak zein durangarren zalantzak peri.durango.eus/hasiera webgunean batu ditu udalak.

Bertan, besteak beste, saio didaktikoetan udaleko arduradunek emandako informazioa barnebiltzen du webguneak. Horrez gain, Ezkurdin kokatutako erakusketan emandako informazioan oinarri-

tutako durangarren galderak eta erantzunak jasotzen dira.

Prozesu horretatik eratorritako ekarpenak zein durangarren zalantzak peri.durango.eus/hasiera webgunean batu ditu udalak

Parte-hartze prozesuaren lehen zati horren ardatz nagusia Ezkurdin jarri zen erakusketa iraunkorra izan da. Erakusketa hori urtarilaren 5etik 28ra bitartean egon da ikusgai. Erakusketa

iraunkorraz gain, eta herritarren balizko zalantzei erantzuteko asmoz, hiru saio didaktiko eskainiko dituzte udaleko arduradunek. Azkenik, tailer didaktikoak egin dira trenak askatutako lursailentan bertan. Tailer horiek zati bi izan dituzte: lehenengoan, bertaratutakoak lursailentara sartu ziren, elementu ezberdinak non kokatuko liritekeen ezagutzeko. Bigarren zatian, aldiz, Ezkurdiko erakusketa-aretoa joan ziren, lursailentan ikusitakoaren inguruan hitz egiteko eta proposamenak egiteko.

Informazio gehiago: peri.durango.eus/hasiera



5

Trenbide zaharra erabilgarri

Aurreakordio honen bidez, gaur egun itxita dauden trenbide zaharreko eremuak udalaren eskuetan uzten dira. Honek ahalbidetuko du Durangoko Udalak epe laburrean berauek zabaldu eta herritarrentzako erabilgarri uztea.

6

Zorpetzerik bako adostasuna

Aurreakordio honetarako, lanketa tekniko sakon bat egin da eta Eusko Jaurlaritzak eta Durangoko Udalak egindako proposamen honek instituzio biak batera ez zorpetzea lortu da, eragiketa honetan guztian alde bien oreka finantzarioa bermatuz.



MARGOTU

DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak



LABIRINTOIA

Lagundu banatzaileari banaketa egiten. Zein da bide egokia?



Martxoak 8

ABADIÑO

Martxoak 5

12:00 Bizikleta martxa. Muntzaratzeko dorretxetik Matienaraino. Peto lilak banatuko dira.

Martxoak 8

Jabekuntza eskolako afrikar perkusioko taldearen erakustaldia. 16:45ean Matienako kiosko plazan / 19:30ean Zelaletako Ferialeku plazan

18:30 Aldarrikatu emakumeen eskubideak eta berdintasuna. Manifestazioa Txanporta plazatik.

Martxoak 11

19:30 'A la manera de los griegos'. Errota kultur etxean (gaztelaniaz).

Martxoak 17

19:00 '35 Huts' Estibaliz Curielen bakarriketa. (euskaraz). Errota kultur etxean.

Martxoak 24

18:30-20:00 'El peso sobre mí' dokumentala eta solasaldia. Dinamizatzailea: Esther Alonso Vallina Mankomunitateko Zaindu zerbitzuko kidea. Txanporta kultur etxean.

DURANGO

Martxoak 5

10:00 Horma irudi margotzea Komentukalen. Ondoren, bazkari autogestionatua.

19:00 Yerma. La Dramática Errante. Antzerkia gaztelaniaz. San Agustín kulturgunean.

Martxoak 7

12:00 Oneka. Emakume pentsiodunen elkarte. Deklarazio instituzionala. Udal plazan.

Martxoak 8

18:30 Itaiaren manifestazioa, Ezkurdiko plazatik hasita.

19:00 Martxoak 8 plataformaren manifestazioa, Andra Maritik hasita.

Martxoak 18

18:30 Literatura solasaldi musikatua Ana Malagonen testuekin. Andraguneko tertulia literarioen partaideak eta txalaparta ikasleak. Andragunean.

Martxoak 26

19:00 Abesti feministen IV. lehiaketako kontzertu finala. San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

Martxoak 5

8:30 Urkiolarako mendi ibilbidea. Plazatik irtenda.

Martxoak 6

Emakumeentzako kirol saioak

10:15-11:15 Pilates saioa. Kiroldagiko kantxan.

11:30-12:30 Aerobic saioa.

Martxoak 7

18:00 'Sare sozialei eta bideo-jokoei begirada bat berdintasunetik' hitzaldia. Iturri Kultur Etxean.

Martxoak 8

Goizean zehar hezkidetzeta kalera. Ganondon, frontoian eta plazan.

18:30 Elorrioko Asanblada Feministak deituta manifestazioa. Herriko plazatik hasita

Martxoak 9

10:00-11:30 Elikadura burujabea eta nagusiak tailerra. Hizlaria: Isa Álvarez. Aldatsekuan.

17:00 Ipuin kontalaria. Sorgina Txirulina. Emakumeak paregabeak eta berdintasuna. Iturri Kultur Etxean.

18:00 Andrazaharren errealitatea. Hizlaria: Nerea Almazán. Aldatsekuan.

Martxoak 10

11:00-13:00 Topaketa. Non eta zelan daude Elorrioko andrazaharrak?

19:00 Luze edo motz. Umorezko emanaldia. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Plazan

Martxoak 12

16:30 Errugbi partidua. Elorrio-Gernika

Martxoak 15

18:30 Bertso saio literarioa. Idazlea: Mari Luz Esteban. Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Miren Amuriza.

BERRIZ

Martxoak 5

11:00-13:00 Dantza garaikide tailerra (Gaztelaniaz). Berrizko Kultur Etxean

16:00 Gazteen ahotsa, M8 ekintza bereziak. Berrizko Gaztelekuan.

19:00 Lof- Ladies on fight. Berrizko Kultur Etxean.

Martxoak 8

19:00 M8 Berrizko Martxa! Udaletxetik Olakueta Plazara.

Martxoak 12

19:00 Winona&Grace. Berrizko Kultur Etxean.

Martxoak 17

12:00 Atzerrian Lurra Garratz. Berrizko Kultur Etxean.

Martxoak 19

19:00 Niña Coyote eta Chico Tornado. Berrizko Kultur Etxean.

Martxoak 23

18:30 Zinegoak Bilbao LGTB film festibala. Berrizko Zineman.

Martxoak 26

12:15 Puskerrak eta Abestia ipuin kontalaria, Bihar Taldearen eskutik. Berrizko Liburutegian.

Martxoak 27

12:00 Bertso saio literarioa. Idazlea: Miren Amuriza. Bertsolariak: Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Leire Vargas. Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA

Martxoak 3

18:30 'Emakumeak eta literatura' hitzaldia, Ibarretxe kultur etxean. Hizlaria: Laura Mintegi. Dinamizatzailea: Josune Muñoz (Skolastika).

Martxoak 8

11:45-12:30 Kate morea, ikastetxeetatik herrigunera.

18:00 Emakumeen Nazioarteko Egunaren Adierazpenaren Irakurketa, Askondon. Ondoren, bertan bildutako herritarrekin kate morea osatuko da herriko kale nagusienetatik zehar, Askondon hasita.

Martxoak 11

17:00 'Piztu emakumeon energia' (Eidabe Ekimen Kulturala), Ibarretxe kultur etxean.

Martxoak 12

19:00 '¡Ese no!' (Banarte antzerki taldea), Ibarretxe kultur etxean.

Martxoak 13

12:30 Milia Morea herri lasterketa herrigunetik zehar, Askondon hasita. Ondoren, txistorra-jana. Dinamizatzaileak: Iraia Garcia eta Gu Be Bai Runners.

MALLABIA

Martxoak 5

16:00 Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite txapelketa. Herriko frontoian.

Martxoak 6

12:30 Antzerkia 'Soy la bomba'. Herriko frontoian.

Martxoak 8

13:00 Kontzentrazioa udaletxe aurrean.

Martxoak 13

10:30 Eskolarteko gomazko paleta txapelketa. Herriko frontoian.

12:30 'Escupido amor' antzerkia. Kontzejuzarra.

ZALDIBAR

Martxoak 5

21:00 Emakumeen bazkaria eta dantzaldia Olazarren.

Martxoak 8

18:00 Buruberoki tailerra udaletxeko plazan.

19:30 Manifestazioa udaletxeko plazatik hasita.

Martxoak 10

18:00 'Norbere zaintza emozional feminista' berbaldia.

Martxoak 13

10:00 Emakumeok Santemañezarrera irteera. Udaletxeko plazan.

11:00 Tontorrean argazkia.

Martxoak 8

MAÑARIA

Martxoak 5

12:30 Triki-poteoa.

14:30 Bazkaria.

16:00 Bazkalosteko jokoak.

Gauean, DJ Lorontzi Herriko Taska Tabernan.

Martxoak 8

19:00 Enkartelada Herriko plazan.

OTXANDIO

Martxoak 8

10:30 Batukada feminista plazara. Eskolak antolatuta.

11:00 Eskolako ikasleen manifestuaren irakurketa udaletxean.

18:00 Ume, gazte eta helduok plaza feminismoz jantzi.

19:00 Kontzentrazioa.

Martxoak 13

18:00 Zinegoak festibaleko film laburrak.

ZORNOTZA

Martxoak 1-31

'Ez naiz zure loreontzia' argazki erakusketa Zelaieta zentroan. Egilea: Alejandra Bueno.

Martxoak 2

18:00 Hezkidetza espazioa Zelaietan.

Martxoak 4

20:00 Winona & Grace antzerkia Zornotza aretoan.

Zapi feminista tailerra Gaztetxokoan.

Martxoak 5

Emakume nekazarien eta artisauen azoka Zelaieta parkean.

12:00 Ipuin kontalaritza Maite Frankogaz. Arrosa eta leuna. Gaztetxokoa.

12:30 Distira ahots taldea Zelaieta parkean. 'Marixelarre saria'.

Antzerkia: Butterfly effect. Gaztetxokoan

Martxoak 6

Pelikula Gaztetxokoan: Erlauntza.

Martxoak 8

12:00 Kontzentrazioa eta adierazpen instituzionala udal plazan.

16:00 - 20:00 Mugimendu feministak deituta erreferenduma egingo dute: Emakumeen* etxea sortzearen alde zaude?

18:30 Manifestazioa herriko plazatik hasita.

Martxoak 10

20:00 Abeloved tribute to Nina Simone's music (Eunice), Zelaietan.

Martxoak 11

17:00 - 20:00 Sorkuntza fotografikoko tailerra Alejandra Buenogaz. Izen ematea, Zelaietan.



M8

MOBILIZAZIOAK Durangaldea :: Martxoak 8

Berdintasunaren aldarria Durangaldeko kaleetan

Martxoaren 8aren inguruan egitarau zabala antolatu dute Durangaldean. Ekitaldi nagusiak M8an egingo diren mobilizazioak izango dira. Manifestazioak eta kontzentrazioak egingo dituzte eskualdeko hainbat herritan. Abadiñon,

Durangon, Elorrion, Berrizen, Iurretan, Zaldibarren, Mallabian, Mañarian eta Zaldibarren. Mugimendu feministak egingo deialdiek eskualdeko kaleak zeharkatuko dituzte martxoaren 8an, beste behin ere.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Ainbo: la guerrera del Amazonas**

barikua 4: 17:00
domeka 6: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **The Batman**

barikua 4: 19:30/21:00
zapatua 5: 17:30/18:30/21:00
domeka 6: 17:00/19:15
astelehena 7: 18:30
martitena 8: 19:30
eguztana 9: 19:00
eguna 10: 18:30

• **Los amores de Anaïs**

barikua 4: 19:00/22:00
zapatua 5: 18:00/22:00
domeka 6: 20:15
astelehena 7: 18:00/20:15
martitena 8: 18:00/20:15
eguztana 9: 18:00/20:15
eguna 10: 19:00

• **Primavera en Beechwood**

barikua 4: 19:30
zapatua 5: 20:00/22:00
domeka 6: 20:15
astelehena 7: 18:00/20:15
martitena 8: 18:00/20:15

• **Ainbo: La guerrera del Amazonas**

zapatua 5: 16:45
domeka 6: 17:15

• **Tosca (opera)**

eguztana 9: 19:00

• **El acontecimiento**

eguna 10: 19:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **La hija oscura**

zapatua 5: 20:00
domeka 6: 20:00
astelehena 7: 20:00

• **Ainbo: Amazoniako gerraria**

domeka 6: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Belfast**

zapatua 5: 20:00
domeka 6: 20:00
astelehena 7: 20:15

• **Spider-man: No Way Home**

zapatua 5: 17:00
domeka 6: 17:00

• **La historia de mi mujer**
martitena 8: 20:15



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguztaren eguerdia baino lehen.



Angel Gallo Fernandez

Idazlea

DURANGO

“Idatzi ahal izateko, batez ere entzun egin behar zaio jendeari”

LITERATURA • JUAN LUIS ROMATET (BALEIKE)
Angel Gallo idazleak EHUK antolatzen duen zientzia-fikziozko Alberto Magno Literatur Lehiaketa irabazi du, 'Azkarbideak' idatziarekin. Gallo Durangon jaio zen, baina Zumaian bizi da.

Alberto Magno Literatur Lehiaketa irabazi duzu. Zer lehiaketa da hori?
EHUK antolatzen duen lehiaketa bat da, 33 urtez jarraian antolatutakoa. Hasieran zerbait txikia zen, unibertsitateko jendearentzat, baina denborarekin hazten joan da. Esango nuke estatuan zientzia-fikzioaren arloko lehiaketarik ospetsuenarikoa dela. Fama handia du mundu horretan sartuta daudenen artean, baina, egia esan, hortik kanpora ez du hainbesteko oihartzunik.
Zientzia-fikziozko idazlanen lehiaketa da. Ez dirudi hemen, Euskal Herrian, asko landu den generoa denik.
Euskal Herrian zer genero lantzen ditugu? Gaur egun pixkanaka zabaltzen dabil. Zientzia-fikziozko generoa oso hedatuta dago; asko

irakurtzen da, baina sorkuntza aldetik ez da asko jorratzen. B serieko zerbaiten parekoa da. Zientzia-fikzioa aipatzen duzu eta Star Wars ez ari zarela dirudi.
Zientzia-fikzioaren mundua oso zabala da. Zuk zer kontatu duzu?
Oinarria, izatez, gaur egun bizi dugun egoera bitxi bat da. Planeta faktoria handi bat izango balitz bezala erabiltzen dugu: kotoia Estatu Batuetan hartu eta Txinara eramaten dugu lantzeko; Europatik Indiara eramandako plastikoen kamisetak egiten dituzte Bangladeshen. Beste planeta batzuk badaudela ikusita, agian etorkizun batean ez dugu gauza bera egingo unibertsoarekin. Hortik ekin nion narrazioari, errealitatearekin paralelotasun bat osatuta: ezagututako planeta bakoitzak bere funtzioa izango du, eta horrek bertan bizi direnen eskaerak moldatuko ditu. Planeta batetik bestera joateko, azkarbideak deitutako bide batzuk daude, zulo batzuk; ez dakigu ondo nola funtzionatzen duten, baina erabil-

tzen ditugu. Baina zerbaitek huts egingo du, eta hor gatazka bat sortuko da.

Ingeniaritza irakaslea zara Mondragon Unibertsitatean. Zure lanbideak lagundu al dizu istorio hau idazterako orduan?

Zientzia-fikzioa izanda, beti eduki behar du parte tekniko edo zientifiko bat, eta ezagutza hori badudanez, beti saiatzen naiz nire lanetan hori sartzen. Zientzia-fikzioa beti lotzen dugu gertatu ez diren gauzekin; errealak ez diren gauzak sartu behar dira. Baina saiatzen gara, nolabait, horiek gaur egungo aurrerapen teknologikoen lotzen. Batetik, hori. Bestetik, unibertsitatean 17tik 21 urtera arteko gazteekin lan egiten dugu. Eurekin harremanetan gaude egun guztian, eta badakigu zer gustatzen zaien eta zer ez, zer irakurtzen duten eta zer ez. Haiengandik gertu egote horrek laguntzen dit hizkuntza eta erritmo motak definitzen. Bakoitzaren burbuilatik aterata, jendearekin interakzionatzeak ekartzen ditu halako abantailak. Esaten da idazteko irakurri egin behar dela, eta ados nago horrekin. Baina, batez ere, entzun egin behar zaio jendeari. Unibertsitateko lan horrek laguntzen du horretan.

Ez zara lehenengoz aurkeztu lehiaketa horretara. Emaizta onak lortu al dituzu besteetan ere?

Aurreko urte batzuetan ere aurkeztu izan naiz lehiaketa horretara, eta iaz bigarren geratu nintzen. Uste nuen hori izan zela nire

topea. Mundu osoko 149 idazlan aurkeztu ziren; euskarazko lan batekin aurkeztu nintzen ni –kategoria bakarra dago– eta emaitza horrekin oso gustura nengoen; halako lehiaketa handi batean bigarren izatea izugarria iruditzen zitzaidan. Lehiaketa horretatik kanpora, ordea, genero guztietan idazten dut. Ez nago itxita beste genero batzuetara.

Zientzia-fikziozko generoa oso hedatuta dago; asko irakurtzen da, baina sorkuntza aldetik ez da asko jorratzen

Julene Azpeitia lehiaketan ere sariak eskuratu izan dituzu.

Behin bigarren geratu nintzen lehiaketa horretan, bai, oraindik Zumaian bizi ez nintzenean; Zarrutzen bizi nintzen garai hartan. Oso pozik nengoen. Orain, herrikoa izanik, pare bat aldiz lortu dut zumaian onenaren saria. Julene Azpeitia oso ondo dago; idazlan laburrak egin behar dira, eta badaikit maila oso ona dagoela. Urtero saiatzen naiz zerbait desberdina idazten. Askotan, idazten dudana ez da lehiaketa batean baloratuko den zerbait, baina saiatzen naiz gauza ezberdinak egiten, bestela aspertu egiten naiz.

Nondik datorkizu idazteko grina hori?

Ondo pasatzen dut idazten; gustatzen zait gauzak kontatzea, gauza txikiak lortzea. Horregatik jorra-

tzen ditut estilo desberdinak. Honez bizi nahiko banu, edo esparru horretan aditua izan nahiko banu, gai txikitxo bat hartuko nuke, eta behin eta berriro landuko nuke. Baina niri ondo pasatzea gustatzen zait, eta zerbait idaztea estiloa, ideia edo sentimendua transmititzeko. Bizikletazalea naiz, eta askok esaten didate ea zergatik igotzen naizen mendi batera berriro jaitsi behar badut. Horrekin ez dut ezer irabazten, ondo sentitzen naiz; bada, idaztearekin ere hala gertatzen zait. Egia da, noizean behin, barruan duzun ideia bat islatzen duzula; izan daiteke beldur bat, poztasun bat, izan daiteke dena delakoa. Baina ez da beti hori.

Egindako idazlan horiek argitaratzen al dituzu ondoren?

Niretzat afizio bat da, eta bigarren parte hori, argitaletxeekin harremanetan jartzea-eta, ez zait batera gustatzen. Pare bat saiakera egin ditut, baina hortxe geratu dira. Hasieran, autoedizioaren munduan sartu nintzen. Izan ere, liburu bat idatzi nuen Peruko mutil batentzat dirua lortzeko, eta orduan bai, saiatu nintzen, eta liburu guztiak saldu ziren. Dirua bidali genion familiari, eta horrekin oso pozik geratu nintzen. Idatzi batzuk ere eginda dauzkate eta karpeta batean gordeta ditut. Neure buruari esaten diot egunen batean atera behar ditudala, eta badaikit, gainera, nola atera nahi ditudan. Baina, zer nahi dut? Sortu ala dagoenari forma eman?... Nahiago izaten dut idatzi.

Dantza, borroka eta umorea uztartzen dituen 'Lof' Berrizen ikusgai, zapatuan

Eva Guerrerok zuzentzen duen 'Ladies On Fight' Berrizko Kultur Etxean egongo da ikusgai



Lau borrokalari dira emanaldiko protagonistak.

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Ring bat, lau borrokalari, epaile bat, irabazle bat. Borroka eta dantza uztartzen dituen emanaldia egongo da ikusgai zapatuan Berrizen. Maria Urcelayk gidaturiko borrokan, Garazi Lopez de Armentiak eta Leire Otamendik osatzen duten bikotea Helenna Wilhelmssonnek eta Estivaliz Villak osatzen dutenaren aurka borrokatuko da. Nor baino nor gehiago, irabazteagaitik noraino heltzeko prest dauden ikusiko da antzezlanean; haibat gai jorratuko dute taula gainean, tragikomedia formatuan: prekaritatea, se-

DOOS kolektiboko sortzailea den Eva Guerrerok zuzentzen du antzezlan

xualizazioa eta lehiakortasuna, besteak beste.

Antzezlan Eva Guerrerok zuzendu du; Jemima Canogaz batera, Guerrerok DOOS kolektiboa sortu zuen 2013an. Harrezkero, lau antezlan luze eta proiektu ugari sortu ditu. Proiekturik arrakastatsuenetariko bat Gorpuztu antzerkia da. 2019an sortu zuten, eta gaur egun biran daude oraindino; Euskal Herrian ez ezik, Espainiako

hainbat herritan aurkeztu dute ikuskizun hori. *Lof*, *Ladies on fight* 19:00etan hasiko da.

Martxoan aukera hirukoitza

2020ko azaroan estreinatu zuten obra, Barakaldon; iaz hainbat emanaldi eskaini zuten Euskal Herriko antzokietan. Berrizkoak gainera, Durangaldean beste aukera bi egongo dira *Lof* ikusteko martxoan. Hilaren 24an, Durangoko San Agustin kulturgunean ikusi ahalko da, 19:00etan. Egun bat geroago, martxoaren 25ean, Zornotza Aretoan eskainiko dute emanaldia, 20:00etan.

'Yerma'-ren bertsio librea aurkeztuko dute Durangon

La Dramática Errantek Federico García Lorcaren klasikoaren berrirakurketa eskainiko du zapatuan

ANTZERKIGINTZA • A.M.

La Dramática Errante konpainiak Lorcaren klasikoaren "erabateko egokitzea" egin du *Yerman*, Maria Goirizelaia antzerki zuzendariaren esanetan. Testuak Lorcaren berba bakar bat ere eduki ez arren, bere esentzia mantendu du. *Yerma*, Ane Pikaza, Bilboko artista ospetsu bat da Goirizelaia obran. Bere senarra, Aitor Borobia, negozio gizon arrakastatsua da; maite du, inguru sozial arra-

kastatsua du, baina 35 urte gaz umerik eduki ezin duela-eta, mundua gainera jausiko zaio Yermari. Patxo Telleriak euskaratu du lana. Loli Astorekak, Leire Orbek eta Unai Izquierdok osatzen dute aktore taldea. Bilboko BBK aretoak ekoiztako lehenengo lan propioa da *Yerma*. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, zapatuan, 19:00etan. Martxoaren 25ean Elorrioko Arriolan ikusi ahal izango da.



'Yerma'.

Gai librean

Isilaraziak VI

Emakumeen Nazioarteko Eguna gertu dagoela aprobetxatuz, omenaldi txiki bat egin nahi diet Artearen Historiako karreran zehar irakurri behar izan ditudan liburuetan aipamenik izan ez duten artista hauei:

Dorotea Tannig, Elisabetta Sirani, Maria Wiik, Elisabeth Southerden, Josefa Kareaga, Anna Waser, Leonora Carrington, Lee Miller, Nicasia Madariaga, Anne Ancher, Elena Asins, Wook Kyung Choi, Faraona Olivieri, Judith Leyster, Huguette Caland, Rosa Valverde, Carla Accardi, Lucinda Childs, Ilona Keserü, Germaine Krull, Fances Hodgkins, Pilar Montaner, Menchu Gal, Ann Mary Newton, Sheila Hicks, Lee Krasner, Maria Helena Vieira da Silva, Inocencia Aranoa, Lois Mailou Jones, Marta Cárdenas, Marie Laurencin, Maria Sibylla Merian, Catharina Van Hemessen, Marie Ellenrieder, Asun Asar-



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa

Omenaldi txiki bat Artearen Historiako karreran irakurri ditudan liburuetan aipatu ez dituzten artistei

Hau ez da unibertsitateko liburu bat, baina pauso bat da izena irakurtzeko

ta, Zuhar Iruretagoiena, Gunta Stözl, Dóra Maurer, Vera Pagava, Victori Malinowska, Rosalba Carrier, Esther Ferrer, Élisabeth-Sophie Chéron, Lygia Clark, Barbara Hepworth, Txaro Arrazola, Anni Albers, Marguerite Gérard, Paula Modersohn Becker, Hannah Höch, Ángeles Santos, Hilma af Klint, Fahrelnissa Zeid,

Frances Benjamin Johnston, Isabel Bakedano, Marie-Geneviève Bouliar, Atsuko Tanaka, Remedios Varo, Wanda Wulz, Mari Paz Jimenez, Germaine Krull, Suzanne Valadon, Damaris Pan, Elaine de Kooning, Sahatsa Jauregi, Sheila Hicks, Carmen Herrera, Maria Felice Tibaldi, Zinaida Serebriakova, Mari Puri Herro, Virginia Jaramillo, Agnes Martin, Maruja Mallo, Marlow Moss, Marianne Von Werefkin, Gabriele Münter, Mary Beale, Lotte Jacobi, Gwen John, Harmony Hammond, Nasreen Mohamedi, Sophie Taeuber-Arp, Kate Matthews, Rose-Adélaïde Ducreux, Marie-Gabrielle Capet, Eveleen Myers, Varvara Stepanova, Laure Albin-Guillot, Charlotte Berend-Corinth, Martha Boto, Charlotte Salomon...

Ez zaudete guztiak, eta hau ez da unibertsitateko liburu bat, baina pauso bat da, norbaitek zuen izena irakurriko duelako.



Maitere Larrañaga Unanue

AZPEITIA | 1951

Tomas Agirre Pujana

OTXANDIO | 1957

Mirugain Mendi Taldea

“Mirugainek behar zituen idea berriak ekarriko zituen jende gaztea; esku onetan uzten dugu”

Otxandioko Mirugain Mendi Taldeak 50 urte beteko ditu aurten eta ekimen askogaz ospatuko dute. Urte hau mugari bat izango da taldearen zuzendaritzan. Maitere Larrañaga eta Tomas Agirre beteranoek erreleboa emango diote belaunaldi berriari

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Zenbat urte eman dituzue Mirugainen zuzendaritzan?

Tomas Agirre: Ni sorreratik naiz bazkidea, eta 18 bat urte nituenetik juntako kide. 1995etik hona presidentea ere banaiz.

Maitere Larrañaga: Tomas presidente sartu zen urtean batu nintzen taldera. 25 bat urte daramatzat.

Eta orain erreleboa emateko sasoi heldu dela erabaki duzue. Zergaitik?

T.A.: Azken 25 urteetan, jende berria sartzen eta irteten joan da. Erreleboa aurrerago ematea zen gure nahia, baina, azkenean, geu ginen geratzen ginenak. Urte hasieran, hordago bat bota dugu.

M.L.: 50. urteurrenaren harira, erreleboa eman gura genuela esan

genuen eta Mirugain desagertzeko arriskuan egon zitekeela. Deialdia ahorrak aho zabaldu, eta azkenean talde bat agertu zen. Horrek lasaitasun bat eman zigun.

“Geroago eta jende gutxiago dator mendi irteeretara. Jendeak gurago du furgoneta hartu eta bere kabuz ibili”

Esku onetan uzten duzue Mirugain?

T.A.: Askok bazkidea dira, irteeretara etortzen zirenak.

M.L.: Gazteagoak dira eta arnas berria dakarte. Mirugainek behar zi-

tuen ideia berriak ekarriko zituen jende gaztea. Olatu fresko bat izan da. Esku onetan uzten dugu.

Zelan sortu zen Mirugain?

T.A.: Gerediaga Elkartetik talde bat irteten zen, Mirugain izenagaz. 1972tik aurrera, pare bat urtean, ekintzak antolatzen ziren, baina federatu barik. Formalki, 1974an sortu zen taldea.

Zuek batu zinetenetik hona, asko aldatu da taldea?

T.A.: Mendira joateko modua aldatu egin da. Gu kanpin-dendekin joaten ginen beti, Gorbeira edo Aizkorrira. Pirinioetara joan ginen lehenengo urtean ere horrelaxe joan ginen. Orain ez dago horrelakorik.

M.L.: Taldean sartu nintzenean, gu gurasoak ginen, ume txikiak genituen eta eurekin joaten ginen mendira. Gero, hazten joan ziren neurrian, uzten joan ziren eta ez da errebelorik egon. Irteeretan batzen garen askok adin bat dugu, jubilatua gara eta umeak ez dagoz mendira normalean. Lanean gabiltza hori aldatzeko. Guraso elkarteagaz hartu-eman dugu. Juntan ere badago guraso elkarte baten jendea. Mirugainen ekintzak egin gura dituzte umeak mendira erakartzeko.

T.A.: Azken 20 urteetan ikusi dugun beste aldaketa bat hau da: geroago eta jende gutxiago dator mendi taldeak antolaturiko irteeretara. Jendeak gurago du furgoneta hartu eta bere kabuz ibili.

Klubera federatzera etortzen dira, aseguru egitera gehienbat.

M.L.: Federatu asko ditugu, 200etik gora! Baina gero ez dira irteeretara etortzen.

T.A.: Material asko dugu eskaintzeko, kranpoiak eta abar, baina ia ez dituzte eskatzen. Zergaitik? Bakoitzak bere materiala erosten duela. Erabateko individualismoa da.

M.L.: Irteeretara datorrenak dena antolatuta aurkituko du, baina gazte askok ez dute premia hori sentitzen. Gaur egun mundu guztiak dauka interneta, GPSa...

“Pou anaien hitzaldia, Mendi Film Festivaleko film emanaldia, erakusketa bat... gauza asko lantzen gabiltza”

T.A.: Baina joera hau ez da Mirugainen gertatzen bakarrik. Mendi talde guztietan gertatzen dabilen zerbait dela esango nuke.

M.L.: Eta, hala ere, uste dut Mirugain ondo dagoela beste batzuekin konparatuta. Azken irteeran 28 lagun batu ginen.

Zer prestatu duzue Mirugainen 50. urteurrena ospatzeko?

M.L.: Hartu den irizpide bat da ospakizun guztia astebetean edo hilabetean kontzentratu barik, ekintzak urte osoan banatuta egotea.

T.A.: Maiatzean, Fundazio Martxan egingo dugu. Ekimen hau urtero-

koa da, Mirugain sortu zen egunaren bueltan antolatzen dugu, baina nobedade bat izango du aurten: martxaren ondoren, denei zabalik egongo den herri bazkaria egingo dugu.

M.L.: Urteurrenako beste ekintza berezi bat irailean izango da. Lau eguneko irteera bat prestatzen gabiltza, Sierra Nevadara.

T.A.: Pou anaien hitzaldia, Mendi Film Festivaleko film batzuen emanaldia, erakusketa bat, spot bat... gauza asko lantzen gabiltza.

Badago zuentzat berezia den mendi irteerarik?

T.A.: Urteko azken egunean Arangio inguruko tontor batera antolatzen duguna. Jende askok Gorbeira joateko ohitura du, baina guk klubetik zerbait errazagoa eskaintzea erabakia genuen.

M.L.: Ohiko buzoi bat barik, metaluzko txondor bat dago han. Herriko bati eskatu genion egiteko. Sasoi batean, txondor asko egiten zen inguru honetan ikatza egiteko, eta horixe irudikatzen du.

T.A.: Urte amaieran hara joan eta Mirugainen urteko agenda erretzen dugu txondorrean, eta berria banatzen dugu.

M.L.: Eta Agur, urtezahar abestia kantatzen dugu. Otxandioko kanta bat da. Emilio Donadok, besteak beste, koruko zuzendari eta organista izandakoak, liburu batean batu zituen Otxandioko, Legutioko eta Ubideko kantak, eta han jasota dago abesti hori.



Tabirako-Baqué taldeko jokalariek Arrasaten, Kopa txapelketa irabazi eta gero. LUIS ITURRIOZ.

Tabirako-Baqué zuzenean igoyerako Lauko Finalera, kopa irabazi ostean

Talde durangarrak Arrasaten lortu zuen garaikurra, hango taldea menderatuta

SASKIBALOA • J.D.

Euskadiko Saskibaloia Federazioak txapelketa berri bat sortu du aurtentzen, Lehen Nazional Mailako Kopa, eta Tabirako-Baqué da lehenengo aldi honetako txapelketa gizonetan. Kopako txapelketa geratzen sari handi bat dakar beragaz: ligako igoyerako Lauko Finalera zuzenean sailkatzea. Horrek lasaitasuna emango dio taldeari laster hasiko den ligako bigarren faseari aurre egiteko.

Kopako finalak joan zen asteburuan jokatu ziren, Arrasaten. Lau talde batu ziren bertan. Finalerdie-

tan, Tabirako Baquek Fundación Bilbao Basket kanporatu zuen eta Mondragon Unibertsitateak Tolosda Take. Beraz, ligako multzo bietan lider dauden taldeak heldu ziren finalera.

Arrasatearrek abantaila bat zuten; finala etxean jokatzeko zuten, zaleen aurrean. Hala ere, Durangarrak ez ziren kikildu, eta 15 puntuko abantailagaz heldu ziren atsedendira. Bigarren zatian, arrasatearrak hiruko marratik asmatzen hasi ziren eta apurka-apurka hurreratu egin ziren markagailuan, baina ez zen nahikoa izan: 67-64.

Zornotza ST Kopara

Eskualdeko saskibaloiak beste albeste on bat ere izan du azken egunetan. Zilarrezko Ligan dabilen Teknei Zornotzak koparako sailkapena lortu zuen joan zen astean. Melilla eta Alega Cantabria taldeen arteko partiduan egon zen gakoa. Atzeraturiko partidu hori Melillak irabazi zuen eta horrek Zornotzari eman zion sailkapena. Gainera, kopako azkenengo fase horren anfitrioi izango da Zornotza. Finalak Larrea kiroldegian jokatu dituzte, martxoaren 12tik 13rako asteburuan.

100 txirrindularitik gora Zaldibarko lasterketan

Domekan, elite, 23 urtez azpiko eta junior mailako txirrindularitza lasterketa jokatuko dute Zaldibarren

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Zaldibarko Emakumeen Saria lasterketak bigarren aldia beteko du domekan. Elite, 23 urtez azpiko eta junior mailako 100 txirrindulari baino gehiago batuko dira, antolatzaileen esanetan.

Lasterketa 10:30ean hasiko da, Euskalherria kalean. 72 kilometroko ibilbidean, Berriz, Abadiño eta Elorriotik ibiliko dira eta Miota eta Aretio mendateak igoko dituzte.

Lasterketa orain hiru urte antolatatu zuten lehenengoz, eta pande-

miaren ondorioz aurtentzen arte ezin izan dute bigarren aldia antolatu.

Bizikleta martxa, Abadiñon

Abadiñon ere bizikleta izango da protagonista asteburuan, baina kasu honetan ez da lehiarik egongo eta berdintasuna aldarrikatzea izango da helburua. Zapatuan, 12:00etan, bizikleta martxa bat egingo da Mutsaratzeko dorretxetik Traña-Matienara. Abadiñoko Udalak eta Eneicat taldeak antolatu dute ekimena.



Zaldibarko txirrindulari lasterketa.

Jokaldia

Taldearen babesa

Mendiko lasterketetan taldeko lana ez da hain garrantzitsua izaten. Zapatilak jantzitakoan, bakarkako lana da egin beharrekoa, batez ere. Baina taldearen babesa sentitzea eta taldekideekin gustura egotea ezinbestekoa da.

Nik neuk behintzat hori bizi izan dut Euskal Selektzioan egon naizen urte guztietan, eta oroitzen ezin hobeak ditut. Hasierakoak, Kepa Larrea, Arkaitz Zamakona, Iker Karrera, Zuhaitz Ezpeleta, Jokin Lizeaga, Eneko Aliende eta Marta García lagunekin, besteak beste; gero, Elena Calvillo, Aitziber Ibarbia, Hassan Ait Chaou, Uxo Irigoien taldekideekin...; eta nire azken txanpan Mayi Mujika, Maria Zorroza, Ander Iñarra... selektziokideekin. (Denak ezin aipatu, zorionez zerrenda luze-luzea da eta). Beti esango dut Euskal Selektzioan bizi izan dudana



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

"Beti esan dut Euskal Selektzioan bizi izan dudana errepikaezina dela eta ez dudala inoiz ere ahaztuko"

"Baina denon kirol ibilbidean aldaketak gertatzen dira, eta beste bidezidor batzuk ere ezagutu nahi izan ditut"

errepikaezina dela eta ez dudala inoiz ere ahaztuko.

Baina denon kirol ibilbidean aldaketak gertatzen dira, bizimoduan gertatzen diren moduan, eta beste bidezidor batzuk ere ezagutu nahi izan ditut. Murrell taldearen gonbidapenari baiezkoa eman eta taldekide berriak ditut orain. Baina, funtsean, nire bizimodua ez da

askorik aldatu, mendiko korrikaldiei eta lasterketei dagokienez behintzat. Hori bai, desberdina da taldekideak betikoak izatea, euskaldunak, gertukoak, edo oraingo moduan bakoitza Europako punta batekoa izatea. Ez hobe, ez txarragoa, desberdina. Ezezagunagoak izatera, premia-koagoa da lantzean behin elkartzea, tratatu zuzena izatea, talde bat garela sentitzea, taldearen babesa eta berotasuna sentitzen ez badira ez duelako merezi talde batean egotea.

Taldekideok Gran Canarian elkartzeko gara asteburuan, elkar hobeto ezagutzeko eta gure arteko harremana estutzeko, eta indarberrituta etorri naiz. Beti dago zer ikasi elkarrengandik, eta beti da interesgarria beste kultura batzuetako jendearekin egotea. Eta, bide batez, Shakespeareren hizkuntza praktikatzeko, nahiz eta nahi baino ostikada gehiago eman.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Botikak

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

DE DIEGO Intxaurreondo
22. - DURANGO

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA
Trañabarren 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - ELORRIO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 6 - 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 9 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 10 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA



Zorionak, **Ekai (883. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten
dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia
eskuratzeko txartela gura duzunean
jaso dezakezu lurretako gure egoitzan:
Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Unax!** Bi urte egin dituzu!! Asko maite
zaitugu. Musu handi bat zure lehengusu lara eta
Jurgiren partez eta familiakoen partez.



Zorionak, **Izaro**, etxekoan partez. Bereziki
Eukenek eta Ekainek egun eder bat ospatzea opa
deutsue.



Zorionak, **Elene** eta **Bittor!** Jarraitu ingurukuen
egunek argitzen eta pozten. Mosu handi bana!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 8° / 3° 🌧️

ASTELEHENA 🌧️ 14° / 2° 🌧️

EGUAZTENA 🌧️ 14° / 4° 🌧️

DOMEKA 🌧️ 9° / 3° 🌧️

MARTITZENA 🌧️ 14° / 4° 🌧️

EGUENA 🌧️ 14° / 7° 🌧️


Eskelak



Jaxone Arrieta Sudupe

Bizitza kantu bat da
eta hemen, inun baino
alaiago izanen da.
Mundura sufritzeko
ez ginen jaio eta ni, neu
izaten saiatu naiz.
Bidelagun izan zaretenoi,
besarkada ilargiraino eta
buelta.

Eta, azkena egin dezagun
lagunok, topa!
Lara laila, lara lalai la...



2022ko urtarrilaren 26an hil zen.
Azpeitian, 53 urte zituela.
Senideak.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak




ERAIKUNTZARAKO
MATERIALA
Eider Rodriguez
(Susar)



DENA AMETSA DEN
IRUDIPENA
Leire Vargas
(Elkar)



IZURDEEN AURREKO
BIZITZA
Kirmen Uribe
(Susar)



KARENA
Alaine Agirre
(Elkar)



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde
(Susar)

“Oso zintzoak izan gara; jendeak ez du onartzen aurreritziak dituela”

Janire Matilla abadiñarrak eta Maider Uribarri zornotzarrak ETB1eko 'Abiapuntua' giza esperimintuan parte hartu dute, gizartean jarraitzen duten aurreiritzien aurrean jarri dira



Janire Matilla Arietaaraunabeña

ABADIÑO | 1988

Maidar Uribarri Artaloitia

ZORNOTZA | 1999

'Abiapuntua' saioan parte hartu dute

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Janire Matilla Bilbon bizi da eta arropa denda bat du bertan. Maider Uribarri soziologia ikasketak amaitzen dabil eta nerabeekin hezkidetzat saioak lantzen ditu. 'Abiapuntua' saioa sei protagonistetarikoa bi dira. Gizartea bere aurreiritzien aurrean jartzeko ispilu bihurtu dira seiak. ETB1eko saioak hainbat gai landu du: LGTBI kolektiboa, adineko pertsonak, aniztasun funtzionala, arrazakeria eta immigrazioa, adikzioekiko menpekotasuna eta kale bazterketa, besteak beste. Maiderrek gertukoak dituen zenbait gai hurbiletik ezagutzeko aukera izan zitekeelako onartu zuen erronka; Janirek esperientzia polita izan zitekeelako.

Gizartean jakin barik jarraitzen diren aurreiritzien aurrean ipini zarete. Aldatu egin da zuen ikuspuntua?

Maidar: Ez dut esango beste pertsona bat naizenik, ez da horrela. Baina *Abiapuntua*-k problematika errealez berba egiteko espazioak eman dizkit, eta gai desberdinekiko hurbiltasuna; beste modu batean ezagutuko ez nituzkeen egoerak bizitzeko aukera. Pertsona alkoholiko bategaz edo kartzelan egon den bategaz berba egin dugu, aurrez aurre, eurek izan dituzten bizipenez. Kameran aurrean zein atzean, hainbat galdera egiteko aukera izan dut.

Janire: Neu ere betikoa naiz, nahiko

zoroa, oso *happy flower*. Baina orain arte oharkabean pasatu zaizkidan zenbait egoera oso hurbiletik

Orain arte oharkabean pasatu zaizkidan hainbat egoera oso hurbiletik ezagutu ditut. Daukadana gehiago baloratzen dut

ezagutu ditut (drogazaletasuna, alkoholismoa, kartzela, ...). Daukadana gehiago baloratzen dut orain. Aurreritziak ezjakintasunetik

datoz eta informazio gehiago dut orain. Kontzientzia gehiago dut.

Hartu duzue sorpresarik? Zelako esperientzia izan da?

Maidar: Harritu baino gehiago, inpaktatu egin naute ezagutu ditudan bizipenek. Alkoholikoa zen amaren lekukotzak, lehenengo pertsonan, inpaktatu egin ninduen. Esperientzia berri bat izan da, jakintza berri bat, oso aberasgarria. **Janire:** Aberasgarria izan da, bai. Baina egoera latza bizi duten pertsona horien errealtatea bizitzea oso gogorra izan da: asko eragin zidan bikote migratzaile gazte bategaz bategaz besoetan, beldurtuta.

Maidar: Kalean bizi diren errealtatea egin zait gogorrena niri. Konturatu naiz eurengan pentsatu dudala gutxien. Migratzaileen errealtatea ezagutzeak ere zer

Inoiz bizitzea espero ez ditugun errealtateak dira. Ez dugu geure burua halako egoeretan ikusten

pentsatu eman dit. Inoiz bizitzea espero ez ditugun errealtateak dira. Ez dugu geure burua halako egoeretan ikusten.

Gizartean dauden aurreiritzien ispilu izan zarete. Onartu gura ditugunak baino aurreritzi gehiago ditugu?

Janire: Bai, jakina! Eta guk esan egin dugu. Oso zintzoak izan gara. Orokorrean, jendeak ez du onartzen.

Maidar: Hala da! Lehenengo egunetan, kamerez jabetzen ginen, baina gero... Dena esan dugu, zintzoak izan gara. Horretara joan gara.

Bereziki gogoan duzuen momenturik?

Maidar: Ekain, eraso homofoboa jasan zuen gazteagaz eta haren amagaz egon ginenekoa. Asko enpatizatu nuen, eta amorrua eta tristura handia sentitu nituen.

Janire: Lekeition ezaguturiko Doritak samurtasun handia sortu zidan, 93 urteagaz duen ilusioak, orrazteko eta makillatzeko duen gogoak. Senarragaz bizi da egotzan, eta bien hartu-emanak ikustea oso polita izan zen.

Lauhortza

Martin Loizate Sarrionandia Ingeniarria



Ez dut gerraz idatziko

Ez dut gerraz idatziko, jada esanda dagoelako bando bategi edo besteak irabazi, galtzailea jende xehea dela beti, eta lehenengo biktima egia.

Hala ere, ez dut gerraz idatziko, nahiz eta kontatuko nituzkeen Berlinen igaro egunotan ikusirik manifestaldiak eta metroko haur ukrainarra. Errazkeria baita gaia emozioen esparrura mugatzea, Eroskiko donazio kampanaren arduradunak badaki hori.

Baina ez dut gerraz idatziko, munduan gerrak bezainbat galdera baitabilzkit buruan bueltaka.

Edonola ere, ez dut gerraz idatziko, eguazten gauetz bidaliko dudana idatzi hau barikurako zahartuta legoke, zortzi urte badaramatzen gatazkak abiadura handia hartu baitu.

Edozein kasutan ez dut gerraz idatziko, gerrari ezetz esan eta aldi berean NATOren asmoak salatuko banitu, gerraren aldeko zat joko nindukeelako bategi baino gehiagok.

Ez dut gerraz idatziko, munduan gerrak bezainbat galdera baitabilzkit buruan bueltaka

Alabaina ez dut gerraz idatziko, EBk bakearen izenean Ukrainara armak bidaltzea ez delako notizia, batzuentzat bakea zer den aspalditik dakigu.

Horrenbestez, ez dut gerraz idatziko. Ez naizelako kazetaria eta beste hainbatekin baino hobeto esplikatu dizutelako gertatzen ari dena, adibidez Pablo Gonzalezek edo Hiba Arbidek.



izena emon



BATXILERGOA
ATE IREKIAK
Martxoak 9
18:00etan

ateirekiak.maristak.com